


ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Azaroak 29, 128. zenbakia


Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



ENRIKE FORONDA
Expo-92 eta
Euskadiko pabiloia

HIES-a

Zorigaiztoko gaitza



A R R A S A T E
K I R O L A K

Kontzeziño, 8 ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12

J

ende gehienak, Reebok, Adidas, Nike... eta antzerako marka duten oinetako edo eta txandalak behar izaten ditu korrika egiteko, dotore jantzi eta une berean korrika egitea elkarrekin joan bait daitezke. Dena dela, ez du zertan horrela izanik: katiuskak marka ospetsuko oinetakoen ordez, eta artiledun jertse zaharra amantalpean modazko azken txandala jantzi beharrean ere balekoak



Jabier

izan daitezke. Kasu askotan, korrika egiteko borondate onarekin aski izaten da, are eta gehiago korrikaldia lagun artean egiten bada eta euskararen

alde. Orduan ez zaie begiratzen oina edo arropen markei, pertsonei baizik... euskararen Korrika irabazteko denak beharko ditugu eta.



**HIRU
UTILLAJES**

- **Doitasunezko mekanizazioak, plano eta langileen arabera**
- **Fresatzeko makinak**
- **Zenbakizko kontrola**
- **Mekanizazio-zentruak**
- **Tornuak**
- **Artezko makinak, etab.**

Zaldispe kalea, 10 (95. postakutxa)
ARRASATE Telefaxa: 79 80 97
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61

Goian Industrialdea (24. postakutxa)
01170 LEGUTIO Telefaxa: 45 54 74
Tfnoak: (945) 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Iñaki Mendiguren

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi.

Publizitatea eta harpidetzak:

Amiaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Juan Martin
Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso,
Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza,
Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés,
Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu,
Hankamotz, Maite Toledo, Atalatakoan, ASA
taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea,
Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien
erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan
egiten da.

Egiteko dugun bidea

Nik ez dakit —inork ezin dezake jakin— garapena ote den gizadiaren helburua. Garapenaren garapenez, munduaren ibilera geldiezinak, berez asekaitz hutsa dugun teknologia aurreratuari jokoa egiten dio. Aurreratu idatzi dut eta ez aurrerakoia, izan ere bi kontzeptu horiek antonimoak izan bait daitezke. Gizona ongi egiten ari den ala ez epaitzeko legeren bat asmatu beharko litzatekeela, norbaitek esan zuela diote. Ez nago oso ziur lege horren zintzotasunaz, gizonaren bihurrikeriak atzekaldea bilatuko —eta aurkituko— bait lioke epailearen erabakiari.

Dena den, daramagun martxa honen bitartez, historia etorkizun bilakatu da. Gaurkoak ez du balorerik lasterketa teknologikoan, sekula iristen ez den «bihar» horretan itxaropenak ipini direlarik. Zeharo txundituta geratu naiz, informazioa prozesatzeko ahalbideak —hau da, ahalmen informatikoa— bi urteko epean bikoiztu egiten dela irakurri dudanean. Zer ez dute ikusiko lurtaurrek bost hamarkada barru? Jarri gara pentsatzen inoiz, duela hamabost urte zeharo arrotz zitzaizkigun bitartekoak eguneroko bizimodu arruntan sartu zaizkigula?

Begira ari natarie ATB eskaintzen ari zaigun teletestuaren irudiei. Eguneko mezu eta informazioa nire

jezarleku erosoan pasiboki eta patxadaz irensten ditudala. Faxen bidez heltzen zaigun informazioa herren geratzen ari da; telex zein telefonoz bialdutakoak hil zorian daude; postaz ez da ezer baliotsurik igortzen: ehortzita izan zen aspaldi mezubide hori. 1991ko azaroaren gau honetan, Arrasate mailan berrikuntzat har genezakeen teletestu hori, epe laburrean alferrezko tramankulu ganbarara pasatuko da, kupidarik gabe. Eta abar eta abar.

Laster, etxetik atera gabe, kontu korronteen saldoa, seme-alaben unibertsitari kalifikazioak, enpresa lehiakideen urteko emaitza ekonomikoa, New Yorken arratsaldero argitaratzen den "City News"aren azken albisteak, Pariseko Bibliothèque Nationale delakoan aurki daitekeen fakzimila, modako merkatuan gerta daitekeen joera, ... eta giza adimenak zerrenda litzakeen gai guztien gaineko informazioa eduki ahal izango da, tekla batzu sakatzuz gero.

Iraultza teknologikoaren beste urrats txiki bat, norantz apuntatzen ari den inork ez dakien lasterketa itzelean. Baina, egiaztapen bakarra zera da, ezinbestekoa zaigula deman horretan parte hartzea -ahalik eta abiadurarik arinenaz, gainera- beste lehiakideek garaituko ez bagaituzte.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

LILURA

zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta, 5 etxabea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE

comercial san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidairako eta narruzko artikuloak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**ATERA
KONTU!
Beste
kontu bat
ekartzen
duenari
oparia
emango
zaio sari**



BANCO VITORIA

Garibai, 7 ARRASATE

Martutenen

Ni atxilotu eta preso sartzeko agindua eman dio Donostiako Entzutegiak Ertzaintzari, baina gartzelara joan aurretik publikoki salatu nahi nuke epai hau eta beronen aplikazioa.

1988ko martxoan, etxerantz nindoala, Ertzaintzak atxilotu ninduen manifestazio batean autoritatearen agenteei eraso egin niela salatuz; Mikel Lopetegi euskal preso politikoa Herrerako espetxean hil zela eta, protestatzeko antolatua zen manifestazioa. 1989ko ekainean egin zen "epaiketa" (bitxia bada ere, Donostian), eta absolbitu egingo ninduten usteaz irten ginen handik. Hilabete batzuk geroago izan nuen (ezusteko) epaiaren berri: 7 hilabeteko presoaldi txikira kondenatu ninduten (fiskalak eskatzen zuena, hain zuzen). Epaiaren kontra ez genuen errekurtsorik egin, "baldintzapeko barkazioa" emango zuten itxaropenez, horrela ez baita presondegira joan beharrik izaten eta normalean horrela jokutzen da 12 hilabete baino gutxiagoko kondenak direnean eta aurrekin penalik ez dagoenean; baina kasu honetan, epaileek ukatu egin zuten. Hurrengo urratsa, 1990ean, indulto eskatzea izan zen, eta "gaur", urtebete geroago, ez zaidala onartu jakin erazi didate eta espetxera joan behar dudala.

"Epaiketa" fartsa hutsa izan zela iruditzen zait, eta haren aplikazioa "ereduzko zigorra", Ertzaintzak epaileen laguntzaz "oharpen" gisa eman nahi izan diena bidegabakeria sozialen aurka mobilizatzen diren guztiei.

Nire ustez, beste lekukoan aldean Ertzaintzari "pribilejiozko lekuko

kualifikatuen" papera eman zioten epaileek, berdinak izan behar dutela suposatzen bada ere.

Nire ustez, ez da batere kontutan hartu "errugabetasun-presuntzioa", eta "pertsona oro da errudun kontrakoa frogatu arte" delakotik "pertsona oro da errudun beraiek esaten duten GUZTIAN" delakora pasatu gara: hau garbi geratu da istorio guzti honetan, Ertzaintzako bi kideen deklarazioa bakarrik bait dago nire aurka. Hauek, eraso omen zieten pertsonetariko bat identifikatzeko orduan, altuera ertaineko gazte bat, beltzarana, sport-jantziak zegoela esaten dute, pertsona konkretu baten bereizgarriak ez diren xehetasunak emanez.

Bestalde, salatu nahi nuke Ertzaintzak nire fitxa bat izatea, ni aurrez atxilotua izan gabe ere eta identifikazio-atestatua beraren bidez egin izatea, nahiz eta hau (oker ez banago) konstituzioaren aurkakoa izan argi eta garbi.

Azkenik, eta gutun hau bukatzeko, lerro hauek komunikabideetan agertzen direnerako ni espetxean izango naizela esan nahi dut, beste bat gehiago izango naizela "berreziketa eta birgizarteratzeko zentruak" omen diren horietan, paradajikoki, nire kasuan eta beste askorenean, lanpostua galerazten badigu ere.

Besterik ez; zuei "laster arte" esaten dizuet, eta beste horiei, berriz, bidegabekeria berri honekin nire gorputza burdin hesien atzean edukitzea lortuko dutela bai, baina nire burua eta bihotzak aske jarraituko dutela borrokan eta askatasuna maitatzen segitzeko.

Ikusi arte.

Alberto



ileapaindegia


Olarte, 18 etxabea Tfnoa: 79 37 88 ARRASATE

Zer deritzezu talde neonazi berriei?




Luzia Amozarrain
(Etxekoandrea)

Oso gaizki iruditzen zait. Lehengoek ez zuten gauza onik egin eta oraingokoek ere ez dut uste ezer onik egingo dutenik.



Ramon Sebastian
(Abokatua)

Indarkeria erabiltzen duen edozein talde gaizki iruditzen zait. Beraz, kaskamotzak eta horrelako taldeak egotea ez zait bat ere ondo iruditzen.



Jesus Moreno
(Jubilatua)

Kaskamotzak talde horri ez diot errukirik, ze horiek gozatu egiten dute jendeari min ematen eta hori oso gaizki irudutzen zait.



Maite Oruna
(Ospitale-laguntzailea)

Pasada hutsa iruditzen zait. Pertsona bakoitzaren independentzia errespetatu behar. Ezin da pertsona zerbait pentsatzera derrigortu, horiek egin nahi duten moduan.



Carmen Fernandez
(Etxekoandrea)

Oso txarto, nere senarra alemaniarrekin egon zen eta oso gaizki pasatu zuen. Beraz, oso gaizki iruditzen zait orain beste batzuk ideia berdinekin itzultzea.



Jorge Agirre
(Ikaslea)

Pasada izugarria iruditzen zait, mozolo, arrazista eta fatxa hutsak direlako.

INJINERU TEKNIKO GAZTEA BEHAR DA PRODUKZIO SAILERAKO

Ezinbezteko ezagupideak:

- Produkzio-sistemak ezagutu
- Egun-eguneko produkzio-teknikak ezagutu
- Tailerrera zaleatasuna

Berehalako lan-kontratua
Betebeharren arabera soldata

Interesatuak idatz dezatela UCEM CERRAJERA S.A.
Posta kutxa 1. ARRASATE

Kartazalean jarri UCSA-2 erreferentzia.



BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21

Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZAK

Arrasate	79 71 99
----------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
--	----------



29

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "New Jack City" (5-7.30-10).
- Hitzaldia, "La empresa de hoy y del futuro" eta Arizmendiarrrieta sarien banaketa. Eskola Politeknikoan, arratsaldeko 6etan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

30

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "New Jack City" (5-7.30-10)
- Bideo-emanaldia: "Excalibur", Monterronen arratsaldeko 4.30etan.
- Antzerkia, "Tres papás para Totó" Aita Menni Ospitalean, arratsaldeko 5etan.



Pilota

- Iturripeko kiroldegan, goizeko 11etatik aurrera, Arrasate eta Segurako pilotari gazteen arteko partidua.

Saskibaloia

- Musakolako Kiroldegan, larunbatean arratsaldeko 6etatik aurrera Centraljet Euskal Air - Amigos del baloncesto.
- Musakolako Kiroldegan, larunbatean arratsaldeko 8etatik aurrera, emakumezkoen Centraljet Euskal Air - Laneder.

2

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "En la cama con Madonna" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gaez: Camacho, Bergara.

3

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "En la cama con Madonna" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Maala Erre. Gaez: Puy, Bergara.

4

ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Egunez: Morales, San Andres. Gaez: Guallar, Bergara.

Futbito

- Iturripeko kiroldegan, larunbatean arratsaldeko 6etatik aurrera Cnes. Brues - Izarra gorri partidua.
- Zaldibarko Futbito-Txapelketaren barnean, hainbat partidu larunbata eta igandean.

Antzerkia

• Aretxabaletan antzerkia

Aretxabaletako kultur astea dela eta, ostirala, hilak 30, gaueko 10.30tan kurtzeberri Eskolako Aretoan, Louvier's kafe teatroaren antzezkiuna egongo da.

• Aita Mennin antzerkia

Aita Menni Ospital Psikiatrikoak antolatutako Euskal Herriko 3. Adinerako Lehen Antzerki Ihardunaldiak hasi dira dagoeneko. Larunbatean, hilaren 30ean, arratsaldeko 5etan Rafa Fernandez Arestik aurkeztuko du Logroñoiko *La Gira* taldea. Talde honek *Tres papas para Toto* antzezkiuna eskainiko du. Bestalde, igandean, abenduaren 1ean, arratsaldeko 5etan, Arrasate Telebista eta Arrasate Pressek aurkeztuko dute Iruñeko *Zuekin* taldea. Talde honek *Alma de Dios* antzezkiuna eskainiko du.



Ikastaroak

• Yoga Ikastaroa

Arrasateko Jubilatutako eta Pentsiodunei zuzenduriko Yoga Ikastaroari abenduaren 2an emango zaio hasiera. Ihardunaldiak *El Ferial* Eskolako gela balioanitzean izango dira, astelehen eta asteazkeneko arratsaldeko 6.30etatik 8etara. Parte hartu nahi duten guztiek, Iturbide Egoitzan eman behar dute izena, abenduaren 2an, arratsaldeko 6.30etatik aurrera.



EUSKAL LIBURU ETA DISKOAK

Durangon 5etik 8ra

Aurtengoa 26.a izango da Durangoko Euskal Liburu eta Diskoaren azoka, euskaldun askoren urteroko zita, abenduaren 5etik 8ra artekoa. Liburu eta diskoak ikustera joatea da denok erabiltzen dugun aitzakia, eta konpromezuz ez bada ere, denok erosten dugu bakarren bat.

Aurten aipatzeko, alde batetik, Eskoriatzako Irakasle Eskolako Ihardun argitaletxeak argitaratuko duen hiztegia; bestetik, Jazten aldizkariaren lehenengo bost aleak izango dira salgai.

Bestelako ekintzen barruan, hitzaldiak eta liburuen aurkezpenak aipatu behar dira. Abenduaren 5ean *Euskarazko kulturaren geroa Europako herriaren tenorean* mahaingurua izango da arratsaldeko 7etan. Jokin Apalategirekin. Bestelako egunetan ere hitzaldi eta mahainguru gehiago izango dira; dena dela, abenduaren 8an, arratsaldeko 5etan, *Uztaro tailerrak* eskainitako "mundu minerala" ikusentzunezko muntaia egongo da ikusgai.

• Taracea Ikastaroa

Arrasateko Musakola azokako Jubilatutako eta Pentsiodunei zuzenduriko Taracea Ikastaroa antolatuko da, Arrasateko Hirugarren Adinaren programaren barruan. Klaseak bi ordukoak izango dira astean behin. Parte hartu nahi dutenek Musakolako Jubilatuen Etxeko buruei izena eman diezaietela. Abenduaren 3an, asteartea, arratsaldeko 6.30etan ikastaroari eta Musakolako Jubilatutako Etxean sortzeaz dauden ihardunaldiei buruzko hitzaldia izango da, Musakolako Jubilatuen Etxean.

Mendia

• Besaide

Besaide Mendizale Elkartekoak Bardeetara irteera egingo dute abenduaren 1ean. Irteera goizeko 6etan Garibai Etorbidetik izango da. Oso irteera interesgarria izango da.



Liburuak

• Liburu berriak

Arrasateko liburutegian nobedaderik izan da azken aldean. Hona hemen bertan jaso diren liburu berrien zerrenda:

• Auster, Paul: *La música del azar.*

• Gordimer, Nadine: *El conservador.* 1991ko Nobel Saria.

• Muñoz Molina, Antonio: *El jinete polaco.* 1991ko Planeta Saria.

• Kristeva, Julia: *Extranjeros para nosotros mismos.*

• Montoia, Xabier: *Non dago Stalin?*

• Chandler, Raymond: *Ez adiorik.*

• Panero, Leopoldo M^a: *Aviso a los civilizados.*

• Mastretta, Angels: *Mujeres de ojos negros.*

• Galeano, Eduardo: *Memoria del fuego.*

• Oliva de Coll, Josefina: *La resistencia indígena ante la conquista.*

• Borge, Tomás eta abar: *América viva: 1492-1992, 500 años después.*

• Fante, John: *Bunker hilleko ametsak.*

• Mujeres, violencia y derechos humanos.

Haur-liburutegian ere jaso dituzte liburu berriak, honako hauek:

• Nostlinger, Christine: *Ingeles bat etxean.*

• Hope, Anthony: *Zendako preso.*

• Rodari, Gianni: *Los enanos de Mantua.*

• Sarriegi, Mikel: *Purtzil halakoa, zenbat?*

• Zei, Alki: *Tigrea kristal atzean.*

• Ende, Michael: *El secreto de Lena.*

• Porrit, Jonathon: *Salvemos la tierra.*

• Rodgers, Frank: *Cómo dibujar cómics.*

“ Besaide euskal mendizaletasunaren sinbolaria, Besaide gure igoeretan gehiago ezin lagun ahal izango diguten adiskideak gogoratzeko mendizaleen topaleku. Besaide Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herrialdeen erdian kokatua.

Noiz ikusiko ditugu berriz Udalaitez, San Donato, Aitzkorriko katea. Elgeta katea, Murugain, Orixol, Anboto, Alluitz, Mugarra, e. a. Besaidetik orain 36 urte Monumentu zaharra inauguratu zenean ikusten ziren bezala?,

Euskal Mendizaletasunak zorionuneak bizi ditu, bada, Besaideko errehabilitazio proiektuaren inaugurazioarekin, azken hamar urte luzaroan hainbeste lagunek lan egin ondoren, aspaldiko helburu zaharra betea izan delako.

Hau lortzeko bere laguntza eman duten guztiei nire eskerrona luzatu nahi diet...


(Paco Iriondo, Euskal Mendizale Federakundearen Lehendakariak, PYRENAICA 164. zenbakian)

“ (Musikari buruzko mahinguruan) Gainera autoreen zergak ordaintzen ez badituzu epaitua izateko arriskuan zaude. Nik ikusi nuen kontzertu batean udaltzaingoa promotorearen bila etorri zela.

Kontzertuetako sarrerek Autoreen Elkartearen zigilua izan behar dute; hau oso ondo begiratzen dute. Askotan antolatzaileek zigilurik gabeko sarrerek ateratzen dituzte. Hauek ez dituzte deklaritzen eta, beraz, hauen zergatik ez dute ordaintzen”

(Vicente J. Mena, ARGIA URTEKARIA)

Zein ondorio aterako zenituzke Prentsa Lokalari buruzko lehen Ihardunaldietatik?



Hasteko, esangonuke lehen aldiz egiten dela Euskal Herrian horrelako gauza bat herri-prentsa mailan. Ondorioz, zentsu zehatz samar bat egiteko lehen aukera izan dela esango nuke, orain artean ez zen posible eta.

Bestalde, lehen aldiz Euskal Herrian herri-mailako berrogeitamar aldizkari baino gehiago biltzeak garrantzi handia dauka, orain arte ez zirelako inoiz bildu. Horretaz gain, Ihardunaldietan herri-prentsaren Federakuntza posible bat antolatzeaz ere hitz egin zen. Aipamen huts horrek badu bere garrantzia, bakarrik elkartzeko beharra sentitzea zerbait badelako. Ihardunaldi hauek burutu arte, esan beharrik ez dago bakoitza bere aldetik ibili dela; beraz, nolabait elkartzeko behar horri garrantzia handia eman behar zaio, Federakuntza baten barruan funtzionatzeak dakartzan abantaila guztiekin.


Azkenik, prentsa lokalaren egiturari buruz hitz egin zenean, honelako prentsa motari enpresa egitura eman behar zaiola argi gelditu zen; batez ere, kataluniarren aldetik. Enpresa egitura emateak ez du esan nahi, edukiak, kolaboratzaileen lanak edo eta gaien tratamenduak desberdinak izan behar direnik. Ezta gutxiago ere. Produktu herritarra egin behar da, baina edozein enpresak erabiliko zuen ikuspegitik.

Joxe Felix Diaz de Tuesta,
Udaleko Euskara-Batzodeko Teknikarai.

ATERA KONTU!

**Beste kontu bat
ekartzen duenari
oparia emango**

zaio sari



**Garibai, 7
ARRASATE**

ESTUDIO
INTERIORISMO

- Proiektuak
- Diseinuak
- Obra-Zuzendaritza
- Berrikuntzak
- Erakusleihen eraketa (Eskaparatismoa)
- Anagramak

Garibai, 3 bis
ARRASATE
Tfnoa: 77 01 44



Langile ugari pasatu dira hiru urteetan Arrasate Pressetik

Arrasate Press-ek hiru urte

Orain "Arrasate Komunikabideak" elkartearen barruan

Datorren astelehenean, abenduaren 2an, Arrasate Presseko lehen alea kaleratu zeneko hirugarren urteurrena burutuko da. Hiru urteren buruan, opor-rrak eta jaiak alde batera, Arrasate Press astez aste aterata da. Horretaz gain, iaz ateratako urtekaria eta San Juanetan eta hauteskunde biharamonetan ateratako ale bereziak ere aipagarriak dira.

Arrasate Pressen kasuan hiru urteko iharduera ez da ustela gertatu, herri-prentsa munduan, behintzat Euskal Herri mailan, eredu bihurtu bait da.

Arrasate Pressen esperientziaren ondoren, beste hainbat sortu dira toki askotan; gehienak joan den asteko Prentsa Lokalari buruzko Lehen Ihardunaldietan egondakoak gainera.

Lehen alea sortu zenetik gaurdaino, aldaketak ere izan dira, aldizkariaren eduki eta itxuran zein bertan lanean ibili direnen artean. Aurrera begira, bide berria iragartzen da aldizkariarentzat, "Arrasate Komunikabideak" elkarte berriaren barruan geldituko da eta, Arrasate Telebistarekin batera.

Prentsa lokala Arrasaten izan zen

Ostiraletik larunbatera, LK3n burutu ziren *Prentsa Lolari buruzko Lehen Ihardunaldiak* arrakastatsu suertatu ziren. 50 aldizkariaren ordezkariak bildu ziren, herri-prentsa mailan egin direnak eta egiten direnak ezagutzeko, eta aurrera begira elkarrekin joateko bidean lehen urratsak emateko. Zentsu horretan, azpimarragarria izan zen euskal prentsa lokalaren federakunde posible bat egiteari buruz hitz egin zena; Kataluniako ereduari jarraituz, hain zuzen.

Bestalde aipatu daiteke, Arrasate Presseko Ihardunaldiei buruzko ale berezi bat egin zuela hantxe bertan, larunbatean bertan zeudenei banatu zitzaiena.

Euskal Herriko aldizkarietaz gain, ordezkari kataluniar eta galiziarrek ere hartu zuten parte Ihardunaldietan. Neurri txiki batean izan bada ere, esan daiteke Ihardunaldi hauek, batez ere, elkar ezagutzeko balio izan dutela.



IZAGIRRE
harategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

ARAMAIO
okindegia


Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

• **Txitxinpe** •

Bereztasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

zeppelin



Loramendi, 3 etxabea
ARRASATE Tfnoa: 79 74 09

Carrión
música, s.a.

- **PIANOAK:** Yamaha, Kawai, Rameau, Samick, Astor. (Prezio bereziak)
- **MUSIKA-TRESNA ELEKTRONIKOAK:** Yamaha, Roland, Korg, Casio, etab.
- **EKIPO PROFESIONALAK**

M. Iradier, 20 GASTEIZ Tfnoa: (945) 23 07 49

Leintz UdalEuskaltegia mankomunitatea

Hilaren 19an, osatu zen Leintz UdalEuskaltegia Mankomunitatearen Gobernu Organo berria. Aipaturiko Mankomunitatea Aretxabaleta eta Eskoriatzako Udallerriek osatzen dute 1987 ezkerotik eta helburua helduak eskalduntzea eta alfabetatzea du. Batzordea Eskoriatza eta Aretxabaletako hiruna zinegotzik osatuko dute. Datozen bi urteetan Eskoriatzako zinegotzi batek izango du Lehendakaritza kargua.

Gestoraren manifestazioa

Larunbatean, hilak 30, arratsaldeko 7.30tan Arrasaten eskualde mailako manifestazioa antolatu du amnistiaren aldeko batzordeak "Etxean nahi ditugu" lemapean. *Senideak* taldeak ere manifestazio honetara deitzen du.



Erreskate taldeak

Pedro Aranburuzabala desagertu zenetik pasa dira hile batzuk eta oraindik ez da gorpurik azaldu. Larunbat honetan eta hurrengo ostiralean, hilak 30 eta abenduak 6an, erreskateko azken ekinaldiak egingo dira. Jendea taldetan banatuko da eta talde bakoitza bere kasa joango da. Azkenengo ekinaldi honetan Zarautzetik Frantziako Mimizanerainoko kostaldea miatuko da.

Txandaka


ZEMENTO LARREGI, BERDEGUNE GUTXIEGI

Arrasate, zementu eta kutsadura asko baina berdegune gutxiko herria izanik, Udalak onartu egiten du egoera txartuz joatea. Bi gertakariren berri eman nahi genuke, gure salaketa merezi dutenak:

1) Altuera ertaineko hagin (*tejo*, gaztelaniaz) baten ebaketa, San Andresko Polmetasaren aurrean, espaloi berria egitean. Eta ez da lehen aldia... lehen gauza bera gertatu bait zitzaien Garratzeko gorosti bati, Udalako lizardiei...

2) Luxuzko etxebizitzaren eraikuntza Santa Barbarako maldetan, horrek parkearen luzapen eta paseorako, jolaserako eta berdegunetarako aproposa izan zitekeen leku bat laburtu egiten duela irakur beharrez. Ehundaka pertsona pisu merkeen beharrez dagoenean, larregizkoa iruditzen zaigu Udalak onartzea luxuzko etxebizitza horien eraikuntza, bestela ere naturarekin dugun harreman urria are gehiago urritzen bait digute. Parkea eta beronen luzapena gizarte-ondasuna da, herritar guztiok gozatu beharko genukeena, ez bait da beharrezkoa hor ezer eraikitzea.

Aginte publikoen inertzia, interes pribatuaren eragin handia eta alderdien kontzientzia ekologiko eskasa dira zementuz inguratuta egoteko arrazoiak; ahaztu egin dugu garai batean gure espeziea naturan eta naturarekin bizi izan



(*) Mikel Olabe

zela oreka osoan.

Kontua ez da antzinako etxoletara itzultzea, baina bai naturara hurbilduko gaituzten neurriak hartzea. Neurri hauetako batzuk Udalak hartu beharko lituzke:

- Parkeak eta inguruneak zaindu, mantendu eta, ahal bada, handiagotzea. Etkezaretak, Monterronek eta Sta.

Barbarak gure laguntza guztia behar dute.

- Zuhaitz autoktonoak landatzea udalerrriarenak diren lurraldeetan. Obra edo beste zerbaitengatik kendu behar diren zuhaitz guztiak beste nonbait birlandatzea. Paregabea da atmosfera edo eguratsa oxigenatzen duten zuhaitzen zeregina.

- Gabon ostean, izeiak bildu eta bide bazterretan birlandatzea, beste abantaila batzuen artean zarata ere gutxitzen bait dute.

- Eraikuntza berriko etxebizitzetan, batez ere Udalak eraginak direnean, berdeguneetan ahalik eta m2 gehien sartzea.

- Etxe berrien teilatuetan landaretza jartzea, beste abantaila batzuen artean urari ere eutsi egiten bait dio.

Eskua luzatu eta geure laguntza eskaintzen diogu aipaturiko ildo hauetatik zerbait egin nahi duen guztiari.

(*) EKIKoa




ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate



Lurrei bueltak ematen hasi dira dagoeneko Santa Barbara parkean

Sta. Barbarako lanak hasita

Urbanizazio proiektua bi zatitan egingo da

Dagoeneko, Construcciones Arrasate enpresakoek, Santa Barbara parkea urbanizatzeko lanei ekin diete. Hamar hilabeteko epearekin eta 87 milioi t'erdiko aurrekontuarekin, Santa Barbara parkeari itxura berria emango diote. Lanak bukatzen direnerako, Lan Kide Aurrezkiko gune berdeak, Santa Barbara parkekoak eta Monterron parkekoak ia lotuta geldituko dira.

Santa Barbara parkearen urbanizazio proiektua bi zatitan banatzen da: bata Luko aldekoa eta bestea Goikobalu eta Behekobalukoa.

Luko aldean, lorategi botaniko txiki bat jarriko da, landare desberdin ugariarekin (gaur egun ia zabortegia den toki-a, hain zuzen), urmael txiki bat paitarekin eta umeak jolas egin dezaten toki aproposa. Horretaz gain, sarrera pare bat ere egingo dira, Muxibartik eta Arrasate Pasealekutik hain zuzen. Azken

honen sarreran, maila gorabeheragatik, ranpa eta eskailera batzuk eraiki behar izango dituzte.

Goikobalu eta Behekobalu aldean egin beharreko lanak askoz ere samurragoak izango dira, berez inguru hau Lukokoa baino askoz ere naturalagoa eta hobeto zainduta dagoelako. Beraz, konponketa lanei dagokienéz, pasabidearen hobekuntzara mugatuko da gehienbat. Dena dela, Santa Barbara jendearentzat toki egokia izan dadin, mahaiak eta eserlekuak jarriko dituzte parkeko goikalde honetan, nahi duena, nahi izanez gero, arratsalde edo egun pasa joan dadin. Hori gutxi balitz, mahaien inguruan komun eta taberna zerbitzua beteko duen etxola txiki bat egingo da.

Azkenik, normala denez, Santa Barbaran zehar hainbat jarleku eta zakarrontzi jarriko dira.

Usteak uste

Datorren astean, hilaren 6an, arrasatearrok ospatuko dugun San Nikolas egunari begirunerik zor diogula uste dut. Gure nagusiek urtero gogorarazitako aspaldiko usuario hau Santa Ageda eta Santamasen aldean makal xamar geratu zaigula iruditzen zait, are gehiago egutegian Nikolas gure deuna gainditzen duen estatu mailako jaia dekretatuetz geroztik edota, behar bada, jai egun horretako ekintza nagusia sinpleegia izango delako.

Umeak jaiaren partaide nagusi izanik, eskola munduan ondo gordetako ohitura izan da. Eskolako ekintza modura makina bat bider irten izan gara klase osoa elebitan kantatzera.

Gaur egun badira, haur multzo haundi batzuek gain, tradizioaren zama gainean hartuz, ez etxez etxe, baizik eta atez ate "San Nikolak Coronado..."rekin aspertu gaituztenak.

Beste jai batzuk eboluzionatu duten antzera, etxeokandreak omentzen dituen bolo-boloa ba ote dugu gaurkotzerik?

JON GARAI


LEARAN

MARKO-JARTZEAK • LAMINAK • MARGOAK
Biteri Etorbidea, 11 ARRASATE



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39




**Kanaria
Irletara bi
lagunentzako
bidaia.**



Renault Clio 1.1 CL (F. F.)

Sari paregabeak!

Beheko sei denda horietakoren batean erosketak egitean, bi sari bikain hauek zeureganatzeko aukera izango duzu, urtarrilaren 14ean ARRASATE PRESSEN egingo den zozketan parte hartuz.



Iturriotz kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 77 04 01



Otalora, 25 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 20



Maalako Errabala, 5 ARRASATE
Tfnoa: 79 19 25

Foto**tr**ukoa



Joxe Mari Mendizabal zen joan den asteko pertsonaia.

Aste honetako
irabazlea:
AMAIA PAGALDAI

Argazkikoa nor den esanez, bidali
beheko txartela ARRASATE PRESSera
(Azoka kalea, 1) eta aste honetan
ZUBIAGA etxeak emango duen opariaren
zozketan sartuko zara.

ERANTZUNA

**Nor da aste honetako
pertsonaia?**


Izena:

Abizena:

Helbidea:

Herria:

Tfnoa:



KATAIDE

Kataide Poligonoa. ARRASATE
Tfnoa: 79 60 10



Maala Errabala, 13 ARRASATE
Tfnoa: 79 92 76



J. Markiegi
JANTZIDENDA

Olarte, 2 ARRASATE
Tfnoa: 79 15 32

□ Drogomenpekotasun ikastaroa gurasoentzat

Udaleko Drogomenpekotasunen Prebentziorako zerbitzuak ikastaro bat antolatu du urtarrietik aurrera, ikaste-txe ezberdinetako guraso-elkarteen laguntzarekin. Ikastaro honen helburu nagusia, Arrasateko gurasoak arazoari aurre egiteko behar bezala hezitzea da. Ikastaroan jorratuko diren gaiak senide arteko harremanak, inkomunikazioa, elkarbizitzaren arauak, eskolako notak, droga kontsumoa, eta abar izango dira. Matrikulak egiteko epea abenduaren 11ra arte, egongo da zabalik. Ikastaroa dohainik izango da. Izena eman nahi dutenak joan lehenbailehen Drogomenpekotasunen Prebentziorako Zerbitzuaren egoitzara, Arraste Pasealekuko 5ean, edo deitu 794139 telefonora.

□ Pleno berezia

Datorren ostegunean, hilak 5, arratsaldeko 7etan Pleno Berezia burutuko da, euskal presoak Euskadira ekartzeko eskatzen duen mozioa aztertzeko, *Senideak*-ek aurkeztua. Hilaren 6an manifestaldia burutuko da Bilbon.

ONGIETORRIA JAIOBERRIEI

Carmona Garcia, *Maialen*. Azaroaren 17an.
Arriola Altuna, *Saioa*. 18an.
Maiztegi Vallés, *Unai*. Azaroaren 18an.
Moreno Cugnon, *Leire*. 24can.
Gruzeta Altube, *Kepa*. 24can.



Urtero moduan, aurten ere Portaloian mahaia jarri zen

Argia Eguna arrakastatsua

Mahaian jarritako material guztia saldu zen

Argia Eguna zela eta, joan den igandean, urtero moduan, mahai bat jarri zen Portaloian. Mahai gainean, urtekarriak eta egutegiak salgai, baita nahi zuenak Argiako harpidetza egiteko aukera. Balorazio gisa, esan daiteke oso egun baikorra izan zela, mahaian jarri ziren 16 urtekarriak eta 16 egutegiak berehala saldu zirelako. Horretaz gain, 15 urtekarri eta 20 egutegiren eskaririkin osatu zen zerrenda AEDn, jendeak horrela eskatuta.

Urtero bezala, egun honen alderdi-

rik beltzena harpidetzena izan zen, bost besterik ez bait ziren lortu. AED eta Argiako arduradunek ziotenez, harpidetzak egiteko, mahaia jartzea baino sistema egokiagoa bilatu beharko litzateke; jende jakinarengana zuzentzea esate baterako.

Jendearen erantzuna ona izan zela esan daiteke, kuestazioan 50.000 PTA baino gehiago jaso ziren eta. Giroa ere aipagarria, nahiz eta kalean jende gutxi ibili, hankaluze, txalaparta, pintore eta musika ez zirelako falta izan.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

**GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA**

beatriz


**oinetakoak eta
poltsak**

**Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE**

ARRASATE PRESS



77 05 65



Des grandes clásicas
para hoy: EIGER y WALKER

Va de islas:
CORSICA la de la belleza y
LANZAROTE la de los volcanes

El nuevo BESAIDE


Azkenengo **Pyrenaica** alearen azalean Besaide mendiaren argazkia azaltzen da. Besaideko monumentu berria inauguratu zen egunekoa, irailaren 29koa hain zuzen ere. Azalean agertzen zenez, uste genuen aldizkariaren barnekaldean zerbait garrantzitsua azalduko zela baina bakarrik berri txiki bat azaltzen da. ▶

Izen PROPIOAK

● **Juan Luis Azkara-te**, 26 urteko arrasatearra, kazetaritza ikasketak egin zituen Leioako Fakultatean. Arrasate Pressen urtebetez lanean aritu zen eta Egineko korrespontsala izandakoa. Astelehenetik aurrera Arrasateko *El Correoko* korrespontsala da.

● **Aitor Orobengoa** eta **Arantza Oruna**, arrasatearrak, Euskadiko Ezkerreko Añamendiko Biltzar Ttipirako aukeratu dituzte. Arantza Oruna orain arte Martin Auzmendiren idazkaria izan da.

● **Mikel Larunbek** Eskualdeko Ospitaleko gerenteak, utzi egiten du eta Madrileko La Paz Ospitalera doa. Beraren ordean, Aretxabaletako **Javier Mar**, orain arte Txagorritxu Ospitaleko mediku zuzendari izandakoa, etorriko da eta abenduaren 1etik aurrera lanean hasiko da.



◀ Utzune Urrizalki

gaztea izan zen joan den asteko *Fototrukoaren* irabazlea, Zubiagako erlojua jaso zuena hain zuzen. Irabazlea bat bakarrik izan daiteke, baina jasotako erantzunak ehundaka izan ziren, gúztiak zuzenak gainera: Juanito Artzamendi zen Fototruko pertsonaia. Zaildu egin beharko dugu asuntoa.

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Araba Etorbidean eta Intxausti baserriaren inguruan dagoen erreka kontrako **petrila** apurtuta dago. Handik jende asko pasiatzen ibiltzen denez, komeniko litzateke konpontzea ez-beharren bat suertatu baino lehen.



Badirudi Gazteteakoak lokala konpontzen ari direla eta hau dela eta lehengo egunean aulkiak margotzen ikusi genituen, azkenean toki polita eta eroso bihurtuko dute.



Aimen ikastolan gizarte-kultur ekintzetan teknikariak izateko ikasten ari direnak, urriaren 28tik abenduaren 1era bitartean Bartzelonara ikasketa bidai bat egin zuten. Bidaiari kultur eta gizarte-kultur gestioan parte hartzeari buruzko hamaika esperientzia ezagutu zituzten.

**Jesus M^a Arizmendi-
rrieta** eta **Maite Narbai-
za** joan zen ekainaren 1ean San Isidroko elizan ezkondu ziren. Aurrerantzean, mila zorion!



Epelde


Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE



Indarrez eman

Gola egiteko aukera garbi ikusten denean, inolako duda barik eta ahal den indar handienaz, ostikada eman behar zaio baloiari. Teknika onak bere garrantzia duen moduan, indarrak ere eragin handia izaten du partiduen martxan



ERAÑA
AHOLKULARITZA
OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzezino kalea, 4 behea. ARRASATE Tfnoa: 79 83 95



Zaldibarko Futbito-txapelketa

A taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Fosforós	7	6	1	0	41	13	13
Adobe	7	6	0	1	33	22	12
Zulu's	7	5	0	2	31	26	10
Akaitegi Express	6	4	1	1	50	16	9
Los Heredia	6	4	1	1	32	13	9
Kriskibalda	7	4	1	2	30	20	9
A. Kristaldegia	7	4	1	2	25	16	9
Los Manchas	7	4	0	3	53	32	8
Neanthertal's	7	4	0	3	25	18	8
G. P. Noski	6	3	1	2	26	13	7
Jubilatus	6	2	3	1	27	27	7
Uglys	6	2	0	4	15	20	4
S. Ind. Ugarte	7	1	2	4	19	30	4
Koxkas	6	0	2	4	26	38	2
Expert	6	0	1	5	11	52	1
T. San Josepe	7	0	0	7	13	52	0
B. D. L	7	0	0	7	5	54	0
Tronkoteak	---	---	---	---	---	---	---
Total	112	49	14	49	462	462	112

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Los Motz	7	7	0	0	51	12	14
La Banda	6	5	1	0	33	11	11
Fasprint	7	4	3	0	27	14	11
Jo ta akabau	7	5	0	2	41	22	10
Navarros	7	5	0	2	29	12	10
Danok Lagun	7	4	1	2	28	17	9
Potroak Lorategi	7	4	1	2	25	17	9
Sibilius Rover	7	3	2	2	19	19	8
Ganbelas	7	3	1	3	20	24	7
Gau azkenak	6	3	0	3	21	15	6
Anbotoste K. T.	6	2	1	3	16	25	5
Txintxes Osorik	7	1	1	5	17	28	3
Bukanak	6	1	1	4	15	32	3
Inter de Alima.	6	1	1	4	9	26	3
Maria del Monte	6	1	0	5	5	36	2
M. K. A.	6	0	1	5	12	32	1
Olee!	7	0	0	7	10	36	0
Totxus	---	---	---	---	---	---	---
Total	112	49	14	49	378	378	112


C taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Gnu. Seg. Bilbao	7	6	1	0	23	4	13
Adelaida	7	6	0	1	37	9	12
New Laso Arregi	7	5	1	1	25	12	11
Bar Kajoi	7	5	0	2	45	17	10
Argi Ibili	7	5	0	2	38	18	10
Diego Antonio	7	4	2	1	30	20	10
AEK	7	4	2	1	27	20	10
ATB	7	3	2	2	23	21	8
Txokeros	7	3	1	3	23	22	7
Taber. Monterey	7	2	3	2	20	25	7
Aurrera bolie!	7	2	2	3	18	20	6
Arrasate Press	7	2	1	4	15	21	5
Alaves	7	2	1	4	15	27	5
Shaktale	7	1	2	4	19	28	4
Aizpun Bila	7	2	0	5	22	50	4
Bayer de Lenitz	7	1	1	5	13	37	3
Sokoakoak	7	0	1	6	20	38	1
Whiskeria Linde	7	0	0	7	17	41	0
Total	126	53	20	53	430	430	126


D taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Arrasate Kirolak.	7	6	1	0	31	11	13
Camerun's Trikiti	7	5	2	0	36	14	12
Artzankos Udal.	7	6	0	1	32	15	12
Notxingan Flo.	7	5	1	1	28	16	11
V. C. Daglas	7	4	1	2	37	9	9
Bar Artano	7	4	1	2	28	23	9
Arrasate Comer.	7	4	1	2	17	17	9
Hirei	7	4	0	3	23	19	8
Pepelus	7	4	0	3	23	19	8
Bizkorak	7	3	1	3	24	20	7
Kakajauri	7	3	0	4	16	20	6
Ghana	7	2	0	5	21	22	4
Resakas	7	2	0	5	19	27	4
Ezkinako Hontza	7	2	0	5	16	35	4
Balaike	7	2	0	5	15	34	4
Nagixak	7	1	1	5	13	29	3
Atxanta ke te...	7	1	0	6	15	45	2
Sukumurus	7	0	1	6	9	28	1
Total	126	58	10	58	403	403	126

JMA JMA



Bata, nola edo hala golaren bila ari denean, izugarrizko nahasteak sortzen dira bestearen ate inguruan. Futbol-zelai handia balitz moduan, askotan erremedio bakarria baloia erdiratzea izaten da. Gehienetan, defentsa lanetan aritzen direnek eskertzen dute.



LASO ARREGI argazkidenda

Alfontso Jakintsua Plaza, 3
ARRASATE
Tfnoa: 79 12 75

EMAITZAK

A taldea

Tronkoteak	—	Expert	—
Los Heredia	4	B. D. L.	1
Koxkas	3	Fosforos	3
Jubilatus	5	Sum. Ind. Ugarte	1
Zulu's	3	Arrasate Kristald.	1
Neanthertals	4	Los Manchas	3
Akeitegi Expres	6	Kriskibalda	0
Uglys	2	Adobe	3
G. P. Noski	3	Talleres San Jose	1

C taldea

Diego Antonio	11	Whiskeria Linde	3
Aizpun Bila	2	Argi Ibilii	15
Sokoakoak	5	AEK	10
New Laso Arregi	1	Bar Kajoi	4
Bayer de Leritz	3	Alaves	1
Arrasate Press	0	Adelaida	5
Monterrey taberna	1	Aurrera bolle!	6
Shaktale	4	Txokeros	4
Gnu Seg. Bilbao	2	ATB	1

B taldea

Los Motz	6	Txintres Osorik	5
Potroak Lorategi	1	Jo ta akabau	4
Bukanak	1	Fasprint	2
Anbotoste K. T.	2	Sibilus Rover	5
Navarros	1	Ganbelas	3
La Banda	8	Oleee!	0
Danok Lagun	5	Inter de Alimañas	0
Gau Azkenak	5	MKA	0
Maria del Monte	—	Totxus	—

D taldea

Nagixak	3	Arrasate Comer.	4
Pepelus	4	Hire	2
Sukumurus Anboto	2	Kakajauri	3
Artzankos Udalaiz	1	Camerun's	7
Notxingan Florest	4	Ezkinako Hontzak	3
Balaiké	7	Resakas	4
Arrasate Kirolak	8	Atxanta ke te	2
Bizkorak	4	Bar Artano	7
Ghana	1	V. C. Daglas	4

EDERRA

TABERNA

Iturriotz, 12
ARRASATE
Tfnoa: 79 96 25

ERROTA-GAIN

Aluminiozko arozteria

Aluminiozko leihoak
(haustura termikoa) eta PVC
Galdaragintza orokorrean

Labegaraia-Azkarruntz auzoa
BERGARA Tfnoa: 76 32 40 Faxa: 76 32 41

KAJOI TABERNA

ERDIKO KALE, 22
ARRASATE
TFNOA 79 32 27



Zaldibarko Futbito-txapelketa

Txutak

Bi talde kanporatuta

Datorren astetik aurrera bi talde gutxiago izango ditugu Zaldibarko Futbito Txapelketa, *Totxus* eta Tronkotean hain zuzen. Bi talde hauek, joan den asteko partiduetara ez ziren aurkeztu; ondorioz, kanporatu egin dituzte.

Txapelketako araudian argi asko irakur daiteke, partidua jokatzen ez agertzeagatik ordaindu beharreko zigorra kanporatzea dela. Beraz, aipatutako bi taldeek ezingo dute inolako errekurtsio edo erreklamaziorik aurkeztu.

Joan den asteko emaitzarik aipagarrienak, sailkapenei begira

behintzat, C eta D taldekoak izan ziren: C taldean *Bar Kajoik New Laso Arregiri* 4 eta 1 irabazi zion eta D taldean *Cameruns Trikitik Artzankos Udalaizti* 7 eta 1. Ondorioz, *Bar Kajo* lau lehenengotan sartu zen eta *Artzankosek* lehen partidua galdu zuen.

Hurrengo ihardunaldiari begira, aurrez bi neurketa interesgarri antzeman daitezke: B taldean, *Los Motz* eta *La Bandaren* artekoa, sailkapeneko lehena eta bigarrena hain zuzen. C taldean, *Adelaida* eta *Bar Kajo* taldeen artekoa, iaz finala jokatu zuten bi taldeek. Orain artean, jokoan jarritako puntu guztiak eskuratu dituzte *Los Motz* taldeko jokalariek. Hurrengo ihardunaldian, zenbaterainoko indarra duten erakusteko aukera izango dute.

Beñardo Kortabarria

DATORREN ASTEBURUAN

A taldea

Los Heredia	G. P. Noski
Koxkas	Akeitegi Express
Jubilatus	Talleres S. Josepe
Uglys	B. D. L.
Expert	Fosforos
Adobe	Arrasate Kristaldegia
Kriskibalda	Zulu's
Los Manchas	Sum. Ind. Ugarte

B taldea

Los Motz	La Banda
Potroak Lorategi	Danok Lagun
Bukanak	Maria del Monte
Anbotoste K. T.	Inter de Almarías
Gau azkenak	Jo ta akabau
Txintxes Osonik	Fasprint
MKA	Ganbelas
Oleee!	Sibilus Rover

C taldea

Diego Antonio	Arrasate Press
Aizpun Bila	Monterey taberna
Sokoakoak	Gnu Seg. Bilbao
New Laso Arregi	Aurrera Boile'i
Shaktale	Argi Ibilii Mapfre
Whiskeria Linde	AEK
Txokeros	Alaves!
ATB	Bayer de Lenitz
Adelaida	Bar Kajo


D taldea

Nagixak	Balaie
Pepelus	Arrasate Kirolak
Sukumurus Anboto	Ghana
Artzankos Udalaiz.	Atxanta ke te...
Bizkorrak	Hirei
Arrasate Comercial	Kakajauri
Bar Artano	Ezkinako Hontzak
V. C. Daglas	Notxingan Florest
Resakas	Cameruns Trikiti

• Arimazuri •
dastapenak

ZABALIK
GOIZEKO SETATIK

Arimazuri plaza / Loramendi, 6
ARRASATE Tfnoa: 79 80 44



EGIDO

Automobilarentzako
ordezko piezak

Lagarta Pabiloia. ARRASATE Tfnoa: 79 82 11

STIHL


Leniz Motor

- Nekazal makinarria
- Basogintzarako tresnak
- Lorazaintza
- Motozikleten salmenta eta konponketa

Gipuzkoa Etorb., 9 ARRASATE Tfnoa: 79 11 78



B E T I SEGURU



MIKEL LASA

Seguru artekaria

Maalako Errabala, 33 etxebehea. ARRASATE
Tfnoa: 79 69 00 / 79 69 43

Enrike Foronda, 44 urteko arrasatearra, Expo-92an Eusko Jaurlaritzak

ipinitako eraikuntzaren edukien zuzendaria da. Gaztetatik Lankide aurrezkiaren lanean hasi zen eta gaur egun hiru urtetako ezedentziakin dago Kultur Bideetan proiektua aurrera eramateko.

Enrike Foronda

Expo-92 eta Euskadiko pabiloia



— Zergatik hasi zinen Kultur Bideetan proiektuan?

— Betidanik gustatu zaizkit kultur ekintzak antolatzea, garai baten Arrasateko zine klubeko lehendakaria izan nintzen. Baina beno, gauza zera da: 87an Eusko Jaurlaritzak eta Lankide Aurrezkiak pentsatu zuten euskal liburu batzutatik pelikula ateratzea eta hemendik sortu zen Kultur Bideetan, neu buru nintzelarik. Kultur Bideetan proiektuan hainbat erakusketa antolatu ditugu, esate baterako eta garrantzitsuenetariko bat *Euskal Hitz* da, Euskal Herri guztian zehar ibili dena.

— Eta Expo-92an?

— Kultur Bideetan proiektuan, 1.700 kultur ekintza antolatu ditugu guztira. Hori ikusirik, Eusko Jaurlaritzak, Expo-92an 1an egitea proposatu zidan eta horrela hasi lan berri honetan.

— Mundu-mailako erakusketa baten parte hartzeko zer hartu behar da kontuan?

— Sevillara 18.000 milioi bisitari etortzea espero da, erakusketa honetan 150 herri parte hartuko dute, eta sasoi horretan Sevillan tenperaturak oso altuak izango dira. Beraz, halako konpetentzia altua izan da eta horrelako baldintzekin eragina izango duen zerbait montatu behar da, jendea gustora gelditzeko.

— Nolakoa da pabiloia?

— Sarrera nagusia erdiko altueran dago, hemen bisitarien zako harrera eta 360ºko pantailadun zine-aretoaren instalazioak kokatzen dira. Beheko solairuan, "Amerika eta Euskaldunak" Erakusketa jarriko da ikusgai, eta goikoan jatetxea eta Euskal Herriko industri eskaintza ezagutzera emateko egokitu den enpresaritzako area berezia lekutuko dira.

— Zeintzuk eta nola banatuko dira pabiloian egongo

diren edukiak?

— Sarreran, jendea zine-ara sartzeko zain dagoen bitartean, monitoreen bidez geroko osagarria izango den bideoklipa ikusiko dute. Zinea da ideia nagusia. Eskainiko den filmek 8 minutuko iraupena du. Etxekoekin batera oporrak pasatzen ari den 11 urteko mutil koskor baten begi-kamarak Euskal Herriko herrialde, errealitate ekonomiko, instituzionala, soziala, tekniko eta heziketa erakusten dizkigu. Guzti hau

Oskorri taldearen musikaz. Eraikuntzaren behealdean erakusketa deskriptibo bat egongo da, Amerika eta euskaldunen artean azken bost mendeetan zehar sortutako harreman-sarea bilduta dago, kultura, erlijioa, politika, ekonomia eta giro soziala ezagutzera emanez. Goikaldeko solairuan ekonomia sektore desberdinetan euskal enpresek duten eskaintzaren azalpen zehatza. Bukatzeko, eta goiko solairuan ere jatetxea egongo da, 60 pertsonendako tokiak izango du eta fama handiko bi sukaldari euskaldun ari tuko dira otorduak prestatzen, eta hamabostero, Euskal Herriko beste sukaldari famatu batek bere platerak dastatzeko aukera eskainiko du.

— Zenbat diru ipiniko du Jaurlaritzak Expo-92rako?

— Erakusketak guztira 22 hektarea izango ditu. Eusko Jaurlaritzak ipiniko duen pabiloia 2.100 metro karratukoa eta hiru pisukoa izango da. Honetarako Jaurlaritzak 1.500 milioiko aurrekontua du.

— Zer iruditzen zaizu Expo-92a orokorrean?

— Erakusketa honek izugarriko gastua suposatzen du. Askotan neure buruari galdetzen diot ea merezi duen horrenbeste gastu egitea. Bestalde, profesional modura begiratuta, kultura, teknologia eta beste hainbat alderdietatik gertakizun oso garrantzitsua dela uste dut.

— Sevilla prest dago halako gertakizun bat hartzeko?

— Sarrera guztiak aireportua, geltokiak eta abar, oso ondo jarri dituzte. Dena dela, prezio guztiak oso altuak dira, eta jendeak 92an pentsatu beharrean, dagoeneko 93an zer egingo duen pentsatzen hasi da, prezioek hain altuak ezingo dutelako jarraitu.

— 66 —

Expo-92an eskeiniko den filmek 8 minutuko iraupena du"

HIESaren hatzaparretatik ihes egin ezinik

Igandea, abenduak 1, HIESaren eguna da. Azken egunetan, Magic Jhonson eta Freddie Mercurie-ren kasuei aparteko oihartzuna eman zaie. Ospetsuengana ezezik, jende arruntarengana ere iritsi da HIES gaisotasuna. HIESa hedatzen ari da. Gaisotasunari aurre egiteko, ikertzaileak inoiz baino lan gehiago egiten dute. Munduan sakabanatuta, milaka lagun bizia eskain dezakeen txertoaren zain dago.


Datu batzuk

L aurogeigarren hamar kadatik hona, ia 367.000 mila kasu munduan, 9.112 estatu espainarrean, 1.094 Autonomi Elkarteetan, 366 Gipuzkoan. Datu hotz eta beldurgarriak, dudarik gabe. Aipamen gisa, beste batzuk: Autonomi Elkarteetan, HIESa dutenen %88a gizorak dira, gainontzekoak emakumeak; Gaisoen, % 45.5a 25-29 urte artean dago, % 28.7a 30-39 urte artean eta % 16.3a 20-24 urte artean; Gaisoen % 80a heroinomanoak dira, % 6a heterosexualak, % 5a homosexual edo bisexualak eta gainontzeko % 6an denetarik dago. 1984. urtetik hona, HIES zutenen %40a hil egin dira eta %60a bizirik dago. Datuak esanguratsuak izan daitezke, baina ez dago hortan mugatzerik, argi bait dago

datuen atzean gaisotasunaren aurka eta biziaren alde borrokatzen duten pertsonak daudela.

HIES, zer da?

H IESaz hitz egiteko, lehenik ezinbesteko ar-



Sexu-harremanetan kondoiaren erabilera premiazkoa da

gitasun bat: antigorputzak izatea gauza bat da eta gaisotasuna hedatzea beste bat oso desberdina. Gaur egun, badago antigorputzak gorputzean hamar urtetan daramatzan jendea, oraindik ere gaisotasunik ez duena, alegia. HIESak, sendagileen taulen arabera, lau fase izaten ditu: 1) Infekzioa. Jendeak ez du osasunean inolako kalterik nabaritzen, analisiak eginez gero egiten da diagnosis. 2) Sintomarik gabeko infekzioa, gripe bat bera izan daiteke. 3) Sintomen azaltzea, batez ere ganglioen inflamazioa. 4) Gaisotasuna bera, aldegai askorekin.


HIESaren birusa, sendagileentzat gaiztoa da oso, beti era desberdinean mugitzen delako eta maiztasun handiz itxuraz aldatzen duelako; gainera, aurrez aipatutako faseetan ez du jokabide zuzenik, berdin joan daiteke lehenetik hirugarrenera zein laugarrenetik bigarreneira. Infekzioa bera larria izanda ere, okerragoa da berrinfekzioa, gorputzean HIESaren birus desberdin berriak sartzen dira eta. Hortaz, nahiz eta HIESa oraindik sendaezina izan, zaintzea behar beharrezkoa da.

Ez etsi!

J on Salaberri arrasa tearrak, HIESaren birusa zuela jakin zuenetik, bere gorputza ez duela gehiegi zaindu aitortu du. Bederatzi urte pasatu dira ordutik, zazpi urtetan gaisotasunik ez zaio hedatu, bai, ordea, azken bietan. HIESaren hatzaparretatik ihes egitea oso zaila dela jakinda ere, Jon Salaberrik ez dio inoiz gaisotasuna borrokatzeri etsi. "Oso garbi daukat, gaisotasuna serioa izan-

go da, baina norberak aurre egin behar dio. Behar bezala zainduz gero, ez deprimituz gero eta talde lanean jardunez gero, posible da bizirik irautea. HIESak jende asko akatu du, baina gaur egun HIESaren inguruan, mundu-mailan izugarri ikertzen ari da, tratamenduak egunetik egunera hobetzen dira... behar bada denbora luzea pasatuko da zerbait benetan erabakiorra aurkitu arte, baina ezin da esperantzarik galdu”.

Zaindu eta ingurukoekin harremanik ez galtzeari garrantzi handia ematen dio Jon Salaberri. Bera, HIESa duten beste hainbat gaiso bezala, HIESaren aurkako komiteetan dabil. Komite horien lana, HIESari buruzko informazioa eskaini eta gaiso ahalik eta laguntza handiena



Euskal Herrian dauden HIES gaixoen gehiengoa drogazaleak dira

ematea. Gertutasun arrazoiak medio, Jon Salaberri Arabako komiteetan dabil. “Beharra duenari ahalik eta ha-

rrerarik onena emateko, etxe baten bila gabiltza. Administrazioari eskatu nahi dugu, berak jar dezala baina

guk geure erara erabiltzeko. Donostian eta Bizkaian bada bi etxe horretara zuzenduak, baina ez dituzte HIESaren aurkako komiteek eramaten. Horrelako etxeen behar handia ikusten dut, jende asko bait dago etxetik kanpo bidali dutena eta nora joanik ez duena. Gure lana, jendeak esateko duena entzutea, bisitak egin, beharrak azaldu eta bultzatzea izango litzateke”.

HIESaren gaitza, psikologikoki oso gogorra da, hala ere hemendik kanpo gogorragoa omen da. “Hemen behintzat, segurantzaren barruan sartzen da. Afrikan edo New York-eko kalean bizi direnek bai dutela gaizki, inungo laguntza barik eta guztiz baztertuta”.

HIESaren eskubideak

"Zuk ez duzu maitasuna egiteko eskubiderik" esan omen zion behin batek Jon Salaberri. "Nolatan ez dudala? Hori horrela bada tiro bat emango diot neure buruari, edo hobe, emaidazu zuk zeuk. Nik ez dut eskubiderik, nirekin dagoenari HIES dudala esan barik maitasuna egiteko, ezta kondoia jantzi barik ere".

Aurrekoa anekdota txiki bat besterik ez da, neurri prebentiboei buruz zerbait esateko aitzakitxo bat. Funtsezkoenak ondorengo biak lirakeke:

- Heroinazale izanez gero, beste inoren txiringarik ez erabiltzea. Erabilera nahitaezkoa izanda, lixibaz ondo ondo garbitzea.
- HIESa izanez gero, baita izan gabe ere, sexu-harremanetan kondoia erabiltzea eta segurtasun gehiago behar izanez gero, spermizidaren bat. Sexu-harremanei dagokienez, penetrazioak ez badago, esan behar da ez dagoela kutsatzeko inungo arriskurik; hau da, musuak, masajeak, laztanak eta abarrek ezin dute inor kutsatu.

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 89 89

Eskubaloi taldeak irabazi


Arrasate Kirolak eskubaloi taldekoak noraezean dabilta aurtengo denboraldian; egun batean arerio erraz baten aurka partidua galtzen dute eta hurrengoan gai dira, sailkapenean beraiek baino askoz ere hobeto kokatuta dagoen talde bati irabazteko. Zorionez, joan den asteko egoera hauxe izan zen eta Arrasateko jokalariek, aurtengo denboraldiko partidurik hobereña eginez, erraz menderatu zuten Donostiako Carmelo taldea, sailkapeneko bigarren postuan zegoena hain zuzen. Ea bada arrasatearrak, gai diren joan den asteko partiduan erakutsi zuten joku mailari eusteko.



■ Joan den otsailaren 23an, Juan Jose Uriarte "Bermi" Arrasateko Igeri Taldeko Lehendakari izendatu zuten, baina orain kargua utzi du. Kargu-uzte honen arrazoia egin beharreko lanak ezin egitea, izan ere, bere lanaz gain, Juan Jose Uriarte zinegotzia ere bada. Berak aitortu zuenez, lehenago zuen kargua uzteko asmoa, baina Igeri Taldeko egitura finkatu arte ez omen zuen hori egin nahi. Behin egitura finkatu eta gero, "Bermi" bere kargua utzi du. Oraindik ez da ezagutzen nor izango den

"Bermi"k utzitako kargua hartuko duena, datorren asteazkenean erabakiko bait da.


Gaur egun, Igerilari taldeko kategoria desberdinetan 60-70 pertsona dabilta.



■ Cnes. Brues futbito taldea, gogor ari da bere estrainaldia den denboraldi honetan. Hamasei talderen artean, momentuz sailkapeneko zortzigarren postuan dago, bigarren sailkatuarengandik bi puntutara eta liderrarengandik hirura. Arrasatearrek, orain artean 8 partidua jokatu dituzte: 4 irabazi, 2 berdindu eta 2 galdu. Cnes. Brues-ek kategoriaz igotzea nahiko balu, sailkapeneko lehen postua eskuratu beharko luke, gauza zaila oraingoz. Dena den, itxaron egin behar zer egiteko gauza diren ikusteko.

Hurrengo partidua

Elgoibarrek partidua ona jokatu zuen joan den igandean Atxabalpen, baina hala ere zorte txarrari leporatu behar zaio Mondrak bakarrik puntu bat lortzea, Elgoibarkoen gola arauzko lau-rogeitamar minutuak pasa eta gero iritsi bait zen. Partidua bi zati oso desberdinak izan zituen, lehenengoa arrasatearrena izan zen eta bigarrena, berriz, elgoibartarra.



Moralez eta jokuz baju samar dabilta Mondrako jokalariek, badira partidua batzuk garaipenik lortu barik eta egoerari nola edo hala buelta eman behar zaio. Entrenatzaileak, aspaldian, lesioak eta zigorrak medio, ezin izan du berak nahiko lukeen hamakakoa zelairatu. Dena dela, dagoenarekin konpondu behar.

Datorren asteko partidua ere, ez da bat ere erraza izango mondragoetarrentzat, Getxon Arenas-en aurka. Getxotarrak sailkapeneko bigarren postuan daude eta aurtengo denboraldi bikaina burutzen ari dira. Jende veteranoak osatzen du getxotarren taldea, zela gainean beti zer egin dabilen jendea alegia. Mondrarentzat zaila izango da zer bait positiboa ekartzea Getxo aldetik, baina seriotasunez jokatuz gero baliteke sorpresa bat ematea.

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

"PAL"

burdindegia, brikolage eta tresneria


Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99

ZIGOR ARABAOLAZA

Ziklo-krosean gustoren

Zigor Arabaolazak hamasei urte ditu eta esan daiteke bizitza erdia bizikleta gainean egin duela, zortzi urte zituenetik lasterketetan sartuta bait dabil. Denboraldi osoa errepideetan eman eta gero, orain ziklo-krosaren garaia iritsi zaio. Zigorrek berak aitortzen duenez, txirinduaren munduan zerbait egiteko ziklo-krosean egingo du, errepideetan ez da oso ondo ibiltzen eta. *"Lautadan ondo joaten naiz, baina aldapak agertzen direnean gaizki pasatzen dut, pisu handiko mutila naizelako. Ziklo-krosean hobeto ibiltzen naiz, lokatza handia duten zirkuitoetan zein zirkuito azkarretan"*. Ziklo-kros garaian, astebururo izaten da probaren bat, igandeetan normalean; horregatik, Zigorrek ez du aukera handirik izaten kalean parrandan ibiltzeko. *"Lasterketa bezperan goiz oheratzen naiz, ilunizeko bederatzia edo hamarrak inguruan. Hurrengo goizean, gogor gosalduta ondoren, urrutira nahiz gertura joan beharra izanda ere, zirkuitora garaiz iristea gustatzen zait; lasterketari hasiera eman baino ordu bat lehenago gutxi gora behera, gero ondo berotu ahal izateko"*. Zirkuitora garaiz

PODIUMA



iritsita ere, Zigor ez da aurreneko leerroetan ateratzen den horietakoa. *"Ja beti azken tokitik irteten dut eta gero jendea pasatuz aurrerantz joaten naiz. Gustatuko litzaidake lehen lerroan ateratzea, baina horretarako ordu-erdi bat lehenago helmugan geldirik egon beharra dago, hozteko arriskuaz"*.

Nahiz eta asteburuero probaren bat izan, Zigor ez da mendian gehiegi entrenatzen duen horietakoa. *"Ez, astean behin bakarrik. Gainontzeko egunetan etxeko errudiloan entrenatzen naiz, lanean nabilenez ez dudalako ilundu aurretik ateratzeko denborarik"*. Denbora, zerbait nahi denean, Iñigo Igartua bergaratrak erakutsi duen moduan, garrantzitsua da. Hori ez izatera, normala da Zigor Arabaolazak ziklo-krosari etorkizun garbiegirik ez ikustea. *"Ni neu ez dakit profesionala izatera iritsi naitekeen edo ez, zail ikusten dut"*.

◆ Pilotariak gaizki

Azken aldean ez dabilta oso fin Arrasateko pilotariak. Joan den asteburuan Gipuzkoako Taldeen Arteko Txapelketan, bai gazte-mailan eta baita nagusienean ere emaitza txarrak lortu zituzten: alebinak 3-18 galdu, infantilak 3-18, kadeteak 12-18 galdu, jubenilak 18-22 galdu, juniorrak 4-22 galdu eta helduak 22-14 irabazi. Datorren astean, Txapelketa horren barruan, ihardunaldi berri bat jokatu dute: gazteak Iturripen Seguran aurka eta nagusiak Donostian Intxaurrendoren aurka.

◆ Saskibaloian denetik

Garaipen bikain bezain garrantzitsua lortu zuten joan den asteburuan Txus Brizuelaren mutilek. Aurrez, inork ez zezakeen pentsatu horrelako diferentziarik egongo zenik arauzko denbora bukatu eta gero, baina Centraljet-ek 91-61 irabazi zion Paules taldeari. Aste honetan, Amigos del Baloncesto taldea izango da arrasatearren etsai.

Centraljet-eko neskek berriro ere galdu zuten. Dena den, ez da arraroa Donosti taldea kategoriako gogorre-tarikoa da eta. Hurrengo partiduan, Musakolako kiroldegian, irabazteko aukera izango dute, Laneder taldearen aurkako partiduan.

◆ Emakumezkoen Mondrak galdu

Iruneraino joan ziren joan den astean Mondra taldeko neskek. Joan ere, zerbait ekartzekotan joan ziren, baina 2 eta 0ko emaitzaz galtzaile itzuli ziren.



Pando

**PINTURAK eta
PAPERETAPENAK**
Aragoi, 6-3. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39

ARRIARAN

UMEEN JANTZIAK

Otalora, 29 Tfnoak: 77 05 61

ARRASATE

Bronkitisa


Hotz, euri eta hezetasunaren etorrerarekin batera, arnasbideetako zoldurak sortzen dituzten germenak berpizten dira. Horrelako gaitzak «katarro» hitzaz izendatzen baditugu ere, egia esan, afekzio asko dago antzerako sintomekin, baina berez prozesu ezberdinak direnak: hoztura arrunta, bronkitisa, trakeitisa? gripe moduko prozesuak...

Gaurkoan bronkitisari buruz mintzatuko gara, afekzio honek helduen % 20a afektatzen du, eta askorentzat ohartu gabe pasatzen da.

Bronkitiko kronikoak dira erregularitasunez espektoratzen dutenak, gutxienez urtean hiru hilabetetan zehar eta bi urte kontsekutibotan.

Arnasbideen hanturak mukien jario ugariagoa sortzen du, askotan goizean botatzen delarik.

«Tximini garbiketa» tipikoa, erretzaileek goizean egiten dutena eta askok batere



garrantzirik ematen ez diotena, bronkitis kronikoaren ezaugarri da.

Tabakoak hirietako kutsadurak, keak eta lantegietako hautsak gaitz honen agerpena errazten dute.

Pertsona hauen arnasbideen babesak gutxiturik aurkitzen dira eta negu aldean hain ugariak diren germenei aurre egiteko ez dira gai; horretan datza ugari eta

iraunkorrek diren katarroak harrapatzeko erraztasuna, hau da, bere bronkitis kronikoaren bizkorketa. «Negua katarroa kendu gabe» igarotzen dutela diote, eta udaberria heltzen denean hobekuntza nabaria izaten dute.

Hauetako bronkitiko askok, ia % 20ak, ezintasun goiztiarrarekin bukatuko dute, izan ere urtero-urtero arnas funtzioa hondatuz doa eta bihotzari ondorio txarra ekartzen dio gainera.

Horregatik, tabakoa uztea, ahal den bizimodurik osasuntsuena eramatea eta gehiegizko pisua kentzea — bronkitisa okerragotzen bait du—, izango litzateke prebentziorik egokiena. Horretaz gain, arnas-arietak egitea komeni da eta ura nahiz fruitu-zuku ugari edatea ere egokia izango litzateke.

Antibiotikoak eta beste botikak ezer gutxi egin dezakete bronkitisari laguntzen dioten faktoreak baztertzen ez badira.

EUKENI & ARANTXA



Parques y Jardines



**PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA**

**LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR**

**LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ**



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)




Ingurugiro arazoak guztion ardura

Ingurugiro heziketa planteamendua, ez da bakarrik eskolara mugatzen. Gizarte honen egituran parte hartzen dugun guztiok badugu toki bat, gure inguruko izaki bizidunok bezala (hauek, gero eta gutxiago). Toki edo gune hori denboran zehar aldatzen doa gizakion ekintzagaritza gehienbat. Eta, aldaketa hauek bide okerretik badoaz, guztiok jasango ditugu ondorioak.

Gure janari, jantzi eta babesa, gure erregai, energia eta aisialdia, errekurtsio naturaletatik datozkigu. Aire eta uraren kutsadurak, mugak zeharkatuz, beste lurralde baten kalteak sortzen ditu. Janari eta errekurtsioak, egunero, hemendik hara garraiatzen dira

Guzti hauetaz hitz egingo dugu hurrengo aleetan, inguruaren egitura eta funtzionamendua hobeto ulertzeko asmoz, eta honen bidez inguruarekiko dauzkagun baloreen kritika eta ebaluaketa bat egiteko.



Udalako haizeak, mezulari

Arrasateko Udalak, 1991ko urtarrilean zabaldu zuen Udalako Ingurugiro Eskola (UIE), Udala auzoan daukagu, gure ingurunearekin lotuta dauden hainbat gai argitu, ingurugiro arazoez kontzientziatu, eta ondorioz, ingurunearekin aldeko jarrerak lantzea helburu bezala dituelarik.

Gaur egun, 10-11 urteko gazteak dira gure eskola

bisitatzen dutenak, Euskal Herriko toki guztietatik etortzen direlarik. Atsegina bezain nekegarria izaten da beraiekin lan egitea Gure asmoa, gazte hauekin egiten ditugun egonaldietan Udalako ingurua ezagutzeaz gain, gaur egungo ingurugiro arazo batzuen zergatia eta horren aurrean zer nolako jokaera izaten dugun jakitea da.

Aipatutakoaz aparte,

UIEn lana egiten dugunok badaukagu eskola beste esparru batzuetara zabaltzeko asmoa, eta hori da gaur egungo gure zeregina.

Esan, azkenik, hilero aterako dugun ale honen bitartez, zuengana hurbiltzea dela gure asmo nagusia, elkarren artean Udalatik datozen haize horiek gureganatu, arnasa berri eta garbi bat lortuz.

Lumaz idazten

Susana Martin arrasatearrak hamabost urte besterik ez ditu eta dagoeneko, bederatzi mila pertsonen artean, lumaz idazten lehen saria eraman du. Susana, Eskola Politeknikoan ikasten ari da eta berak dioenez, probatzearen hasi zen lumaz idazten.

Boligrafoa baino nahiago du lumaz idaztea, baina denbora izanez gero, lumaz ondo idaztea oso zaila bait da. Alde horretatik, eguneroko lanetarako nahiago du boligrafoa erabili. Susanaren ustez, berak oso letra itsusia dauka eta lehiaketa horretan askoz ere politagoa zutenak ziren.

Dena dela, badirudi Luma Idatzizko Lehiaketaren antolatzaileei Susanak duen idazteko era asko gustatu zitzaiela, lehen saria eman bait zioten. Le-


hen sari horregatik, Susanak 30.000 PTA eta urrezko luma bat jaso zituen, "oso ondo idazten duen" luma beraren hitzetan. Ikus dezazuen, Susana Martinek lumaz nola idazten duen, hor behan berak eskaintako lerro batzuk.



Kaixo! Susana uic eta hamabost urte ditut. Arrasatekoa uic eta Eskola Politeknikoan ikasten dut. Oso pozik uago saria-rekin eta uste dut datorren urtean ere sariketan parte hartu-ko dudala

◆ I. Arte Hamabostaldien katalogoa

Dagoeneko argitaratu da I. Arte Hamabostaldiko katalogoa. Katalogoan 18 arrasatearrek parte hartu dute; din A-3 neurrian eginda dago baina, eginda egon arren, oraindik ez dute erabaki zenbaten eta noiz salduko duten. II. Arte Hamabostaldiko katalogoa ere laster espero da kaleratzea.



◆ Antzerkia Aita Menni-n

Euskal Herriko 3. adinerako lehen antzerki ihardunaldiak bukatzeko bi antzerki saio falta dira dagoeneko, larunbatean, hilak 30, arratsaldeko 5etan Logroñoko *La Gira* taldeak *Trespapas para toto* ordu bete eta 45 minutuko antzezlan antzeztuko dute. Igandean, berriz, abenduak 1, arratsaldeko 5etan Iruñeko Zuekin taldeak *Alma de Dios* ordu bete eta 30 minutuko lana antzeztuko dute eta Arrasate Press eta Arrasate Telebistak aurkeztuko dute.

GOROSTI
Jatetxea

Arimazuri plaza. ARRASATE Tfnoa: 77 06 07



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora Z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

◆ **Euskal Rock Jaialdia Txibiston**

Benetan oparoa ari da izaten Txibistoren "azken txanpa" hau (susmoen arabera laster itxiko dute).

Ostiral honetan, hilak 29, gaueko 10.30etatik aurrera, *Su ta Gar* eta *Piztiak* Euskal Rock Taldeen kontzertua ikusteko aukera. Sarrera 300 PTA izango dira eta autobusa doan Bergarako Goiko Plazatik.

◆ **Aretxabaleta Abesbatza**

Joan zen igandean, hilak 24, Aretxabaleta Abesbatzak Santa Zezilia musikoen patroia pasatu zela eta, Aretxabaletako Parrokian abestu zuen eta ondoren bazkaria egin zuten.

◆ **Erakusketa Gure-Lekun**

Cesar Cimiano Arrasateko 25 urteko arte ederretako lizenziatuak, Gure Leku Tabernan oleoz eta grabatuaz osatutako erakusketa bat jarri du.

◆ **DDDP eta SS-77**

Joan zen ostiralean, hilak 22 Aretxabaletako Gaztetxean DDDP eta SS-77 euskal rock taldeek jo zuten. Gaztetxea jendez beteta zegoen eta oso giro beroa eta ona izan zen.



Julio Galarta

Koloreetan oinarritzen den pintorea

Julio Galarta Bengoak 74 urteko pintoreak azaroaren 18tik abenduaren 2ra Donostiako kutxaren erakusketa aretoan erakusketa bat ipini du.

— Zergatik hasi zinen pintatzen?

— Betidanik izan dut pintatzeko zaletasuna, txikitan eskolan ere asko pintatzen nuen. Arrasaten hasi nintzen *artes y oficio*-sen ikasten baina han gehien bat kopia egiten zen. Eskola hau gerra denboran itxi zutenean Bartzelonara joan nintzen Sant Jordiko arte ederretako eskoñara.

— Zein estilotan pintatzen duzu?

— Nik sentitzen dudana pintatzen dut, baina nire estiloa post impresionista da.

— Pintatzen hasi zinenetik hona asko aldatu duzu estiloa?

— Nik beti jarraitu dut bide bera, sentitzen dudana pintatzea, baina beti aldatzen da hasieran kolorearekin dudak izaten dira. Lehendik hona nik esango nuke indartsuagoa eta koloreak argiagoak pintatzen ditudala.

— Zein pintore gustatzen



zaizu gehien?

— Euskal Herri mailan onena Zuluaga eta gero Baroja eta Iturrinotarrak. Gipuzkoan Eloi Erentxun eta Montes Iturriotzen semea izango dira. Bizkaian, berriz, Garzia Barrena eta Baizala.

— Nola inspiratzen zara pintatzeko orduan?

— Nik beti pintatu ditut

kanpoko paisaiak, eta orduan beti daukazu inspirazioa, udazkeneko eta udaberriko koloreak alde batetik eta bestetik negu gogorrean bodegoien eta larrosen modelook hartu eta estudioan pintatzen dut. Horretaz gain, Euskal Herrian beti daude txokoak eta toki politak, inspirazioa bertan dago. Pintatzeko ez dago Parisera edo Italiara joan beharrik.

— Noiz jarri zenuen lehenengo erakusketa?

— Orain dela 25 urte izango dira lehenengo erakusketa ipini nuela. Hamabost bat bider ipini izan ditut erakusketak. Madrilen bitan; Bilbon bizpahiru aldiz; Donostian gehiago, sei bat bider izango dira eta Gasteizen ere beste bost bat aldiz.

— Zer moduz Donostian ipini duzun erakusketa?

— Oso ondo, jende asko pasatu da eta dagoeneko erakusketan ipinitako kuadro asko saldu ditut. Arrasatek ere jende asko pasatu da eta oraindik gelditzen den aste honetan jende gehiago ere pasatuko da. Gainera, pasatu den jendea oso interesatua eta zorion ugari jaso ditut.

Pasatu den jendeak zorion asko eman didate

KIDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin, 5 ARRASATE Tfnoa: 79 25 77

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

Gazteok eta denbora librea

Arrasateko gazteoi ohitura bihurtu zaigu etxetik atera eta zuzen-zuzenean tabernetara joatea.

Eguneroko monotonia-tik atera ezinik hari gara harantz eta honantz.

Gure ustetan arazo honen jatorrietariko bat, alternatiba-falta edota jadanik dauden alternatibei buruzko informazio-falta da, baita hauek suposatzen duten diru-kopurua ere.

Baina egia esan, monotoniatik ateratzea hain beharrezkoa sumatzen badugu, ez al genuke guk geuk ere geure aldetik ahalegin txiki bat egin beharko?

Orain dela zenbait urte, adin guztietako mendizale ugari zegoen gure herrian, baina gaur egun betiko bizpahiru koadrila kontutan hartu gabe, gero eta urriagoa da gazteen artean ikusten den mendizaletasuna.



Ez baldin badakizue ere, ez da beste munduko gauza berezirik behar gure natura eta inguruak ezagutzera irteteko. Nahikoa da nagikeria alde batera uztea.

Agian, dauden alternatibetan parte hartzeko bidea errazten badigute (publizitatea, prezio merkeagoak...) gazte gehiagok lortuko dugu monotonia alde batera uztea.

Adibide paregabea dugu Zaldibarko futbito-txapelketa, honelako irtenbideak



behar bait ditugu Arrasateko gazteok.

ORKATZ SKAUT-TALDEA

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

UrIBE Auzoa
ARRASATE 79 98 94

Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua

Santa Kruz, 24-1º (1º C Eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

HUETO Doktorea

Eztarria, sudurra,
belarriak

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50

ETXEBIZITZAK

- Bi oheko gela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Etxebizitza baten bila gabiltza Arrasaten. Dei egin lanorduetan 79 02 11 (Alberto) eta 79 36 11 (Izaskun) tfoetara.
- Munarren etxebizitza salgai. Eguzkitsua, eraberritua, sukaldea guztiz ekipatua, 2 bainugela, 3 logela, egongela, trastetegia, berogailua gas naturalaz, etxe guztian musika sistema, satelitezko TB gela guztietan, terraza polita ikuspegi ederrarekin, telefõnoa, sotoa, garajea aukeran. Tfnoa: 77 02 81. Gaueko 9.30etatik 11etara.
- Santa Teresa 6, 3. ezkerreko etxebizitza salgai dago eta atarte berberean dagoen bezero oneko ileapaindegi lokala. Tfnoa: 79 03 64.
- Eskoriatzan pisua osatzeko neska baten bila gabiltza. Tfnoa: 81 66 24

LANA

- Etxeko lanak egiteko eta umea zaintzeko prest dagoen emakumea behar da. Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera 79 71 86 tfo.ra. Marisol.
- LH2 eginda eta montaje elektrikoan esperientzia duen mutil bat edozein instalazio egiteko prest: goiargituak, automatikak, automatismoak, etab. Erdi prezioan. Harremanetarako dei egin 77 10 91 tfo.na.
- Etxeko lanak egin edo umeak eta pertsona nagusiak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 54 03
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 90 57. Aretxabaleta.

- Eguerdiko 12.30etatik 1-etara euskarazko mintzapraktika-klaseak emateko Arrasateko pertsona bat behar da. Dei egin 76 15 76 tfo.ra arratsaldeko 8.30etatik aurrera. Reyes.
- Igelesezko klase partikularrak behar ditut. Dei egin 8etatik aurrera 79 72 92 tfo.ra. Marisol.
- Zure lana utzi barik 10.000 PTA irabazi nahi badituzu, dei egin 77 14 81 tfo.na.
- Neska prest etxeko lanak eta garbiketa orokorrak egiteko. Tfnoa: 79 98 19.
- Neska euskalduna behar da goizez ume bat zaintzeko eta arratsaldean etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 94 92.
- Magistaritza eskolako ikasle batek OHoko klase partikularrak emango lituzke. Dei egin 79 08 00 tfo.na.
- Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke. Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfo.na.
- Fisikako klaseak (BTI 2. kurtsoa) emango nituzke. Tfnoa: 79 37 60.
- Frantsesezko klase partikularrak emateko irakaslea behar da Aretxabaletan. Dei egin 79 02 96 tfo.na iluntzean.
- Neska prest OHoko klase partikularrak emateko. Dei egin 77 11 84 tfo.ra 5etatik 6.30etara eta 8.30etatik aurrera.
- Klase partikularrak ematen dira (fisika, kimika eta matematika). Dei egin 77 13 95 tfo.na.
- Emakume euskalduna etxeko lanak egin edo umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.

SALEROSKETAK

- Itzul eta Sor saileko liburuak salgai. Merke eta berriak. 9-13 urte bitarteko haurrentzat. Tfnoa: 79 80 91. Ander.
- Charli Mousser hamabi puntatako granpoiak, Serval lo-zakua eta ezpelaz (boj) egindako nafar dultzaina salgai. Tfnoa: 77 09 72

- Oso egoera onean dagoen eta egurrez nahiz ikatzez dabilen berogailua salgai. Tfnoa. 79 45 80
- Orbea furia bizikleta oso egoera onean salgai 10.000 PTAtan. Dei egin 79 41 71 tfo.na 8etatik aurrera.
- Logelako altzariak, armairu, komoda, etab. (somierra eta koltxoia ezik) egoera onean eta merke. 8etatik aurrera 79 41 71 tfo.na.
- Olivetti Linea 98 idazmakina salgai. Tfnoa: 79 11 44. 9etatik aurrera. Miren.
- Renault Expres SS-AC egoera onean eta oso merke salgai. 45.000 Km. Tfnoa: 79 82 41.
- Pegaso J4 furgoneta egoera onean salgai (6 urtekoa). Dei egin 79 26 81 eta 77 01 79 tfoetara.
- 4 tokitako sofa salgai. Estreinatuta berria eta oso egoera onean, modernoa eta oso merke. Deitu lan orduetan 79 62 80 tfo.na. Rosa.
- 80 cm-kosomier eta koltxoi berri-berriak salgai. Tfnoa. 79 62 80. Rosa.

DENETARIK

- Egunero Bilbora (Leioara) joateko kotxea behar dut, gastuak erdibana. Dei egin gaueko 11etatik aurrera 79 66 99 tfo.na.
- Egunero eguerdiko 2etarako Eibarren egon behar dut. Norbait eramateko prest badago dei egin dezala 79 22 63 tfo.na (gaueko 9.30etatik aurrera).
- Bilbora (Leioara) arratsaldez bazoaz, dei egin 79 22 63 tfo.na, gaueko 9.30etatik aurrera.
- Jon Rodriguez-i bere urtebetetze-egunean zorian handi-handiak Zamoran dagoen bere aitaren partez.
- Betaurreko bifokalak galdu ditut. Dei egin 79 57 58 tfo.na. Saritu egingo dut.

ARRASATEN HILDAKOAK

Crescencio Aranguren Atxa,
azaroaren 18an. 91 urte.

Luis Arrizabalaga Balerdi,
azaroaren 21ean. 78 urte.

M^a Isabel Iglesias Gonzalez,
urriaren 21ean. 36 urte.

Josefa Garmendia Lizaso,
azaroaren 22an. 86 urte.

Pedro Madina Anduaga,
azaroaren 22an. 86 urte.

Cristina Gonzalez Mendizabal,
urriaren 22an. 86 urte.

Jose Galdos Olarieta,
azaroaren 23an. 88 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Joxe Guridi Comercial San Juan Ferreterikoa



- Giltzen kopiak atera ala hiramintak saldu? Giltzen kopiak ateratzea, hiramintak saldu baino, norbere lana dalako.
- Okela ala arraina? Arraina gehiago gustatzen zait.
- Lanerako, uda ala negua? Berdin da.
- Errioxako ardoa ala sagardoa? Biak, baina udan gustorago sagardoa eta afari on batean berriz errioxako ardoa.
- Dendan saldu ala ate bateko zerraila aldatzera joan? Dendan saldu.
- Musika entzun ala dantza egin? Musika entzun dantzan gutxitan.
- Puntapaisak ala tirafonduak? Arrasaten tirafonduak ez dira egiten, beraz puntapaisak.
- Oporrak hotelean ala kanping dendan? Orain hotelean.
- Autoa gidatu ala aldamenen joan? Autoa gidatu, asko gustatzen zait gidatzea.
- Untza gramoka ala paketetan? Paketetan, gramoka ipintzen denbora gehiago pasatzen duzu untzak balio dutena baino.
- San Juanak ala Santamasak? Santamasak noski, santamas batzordekoa naiz.
- Erratza ala fregona? Etxeko lanak ez zait bat ere gustatzen beraz, ez bata eta ez bestea.
- Txikiteatzea ala mendira joatea? Mendira joatea nahiz eta asko ez joan.
- Etxea babesteko zerraila on bat ala ertzainak etxe inguran? zerraila on bat.
- Udan kostaldeko leku turistikoa ala barrukaldeko toki lasaia? Berdin zait bata ala bestea.
- Txandala ala bakeroak? Bakeroak.
- Paretan zuluak egiteko eskuz ala taladroaz edo zulagailuaz? Taladroaz, eskuz denbora asko behar da.
- Lapurra ala behar diren beste entxufe? Behar diren beste entxufe, lapurrak konturatu orduko hondatzen dira.

Bertsotan

Arrasate Pressek 3 urte

1
Arrasate Press 3 urtean hori dugu hori marka! elur pelota txikia zana neurritz badator goraka. Asterik aste etorri zaigu bueltaka eta bueltaka, goitik behera oraindik berriz aldapa luzea dauka.

2
Aldizkariak hainbat badira sarturik zulo beltzian, igarle ona ez ote da ba norbera bere etxian? arrakastarik lurtua du bai gure etxera sartzian, hain maitatua denok izana horren denbora gutxian.

ION IÑAKI IZARZELAIA



PUB HAIZEA



J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate



H

irugarren mailara igotzeko ahaleginetan ibili ziren Mondrako futbolariak berrogeita-

margarren hamarkadan: 1949-50 denboraldian, Mondra preferenteko txapelketa izan zen, baina ez zuen igotzerik lortuko. 1950-51 denboral-

dian, berriz ere preferente mailako txapelketa izango zen, baina igotzea ez zen posible izan. Hurrengo denboraldian, 1951-52, Gipuzkoako afizionatuen txapelketa irabazi zion Michelin taldeari 5 eta 1; txapelketa bereko herrialde-mailan ere, mondragoetarrek lehenengoak izan ziren. Ondorioz, estatuko txapelketa jokatzeko aukera. Mondra erdi-finaletaraino iritsi zen, Marineko galiziarrek kanporatu egin zuten eta.

1952-53an jokatu zuen Mondrak lehen aldiz hirugarren mailan, argazkia orduko da. Ezkerretik eskumara, zutik: **Jesus Moreno, Eugenio Arregi, Juan Arriaran, Juan Egidazu, Iñaki Ceciaga, Luis Arregi, Jose Antonio Mendikute eta Jesus Urkia**; makurtuta: **Jose Maria Guridi, Gregorio Bolinaga, Paco Agirre eta Imanol Ceciaga**. 1956-57 denboraldira arte, mondragoetarrek kategoriari eutsiko zioten.


URONDO
elektrizitatea



- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa 79 04 28

Erreportaiak Asteartea; 21.15.

Gure Arrasate Press-ek hiru urte beteko ditu datorren abenduaren 2an, hau da, datorren astelehenean. Hori dela eta, ATBko *Erreportaiak* saioak tarte berezia eskainiko diogu mondrauetarron astekariari.

Horrez gain, eta *Erreportaiak* saioan ere, azken boladan mundu guztiaren ahotan dagoen HIESari buruzko lana prestatuko dizuegu.

Telebegi

Irakurle sufritu hori, ez zaitut nekarazi nahi nire gogoetekin, baina zuk ez dakizu zenbateko lana ematen duen zenbaitetan sailtxo hau betetzek! Izan ere, "roiloak" botatzeko lagun garenok (ni banaiz, bestela nire ikasleei galde-tu), hamaika mila konturi buruz idatziko genuke lerro hauetan; baina, jakina, gaiak berak (telebista eta komunikazioa) nahikoa moztzen gaitu ni bezelakoak garenok. Beno, zer egingo diogu...

Edozein modutan, gauza bera gertatzen zait askotan Telebistako Berriak saioa aurkezterakoan. Makina bat aldiz gustora esango nuke neure kasa pentsatutako zerbait, eta ez egunero irakurri/aurkeztu behar ditudan paperetan jartzen duenari lotu. Baina seguru nago askoz interes-garriagoak direla zuretzat, irakurle, herrian gertatzen direnak niri gertatzen zaizkidanak baino. Hala ere, beti izan ditut gogokoago beren "zerbait" jartzen duten teleaurkezleak albistea adierazterakoan, albistearen objetibotasuna apurtzen ez duten neurrian.

Dena den, eta horretara nindoan, kamaren aurrean ari garenok ezin izaten dugu alde batera utzi "preso" gaudelako nolabaiteko sentipena, eta gure profesionaltasuna sentimendu horren faltaren arabera neurtu behar da.

KOLDO RODRIGUEZ



Mondra-Gol

Aste honetan:
Arenas-Mondra

**Igandean
9.15etan**

Berriak

ATBko albistegia

**Egunero
8, 8.30 eta
9etan**

Txatxaran

Gonbidatua:
Esteban Uribesalgo

**Asteazkenean
9.15etan**

Programazioa

1

IGANDEA

9.15etan, *Mondragol*. Arenas-Mondra partiduaren ordu erdiko laburpena.

2

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albiste-emanaldia.
9.15etan, *Mondra Sport*. Arrasateko Kirol-munduen errepasa.

3

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Egunean zehar jasotako berriak.
9.15. *Erreportaiak*. Aste honetan Aste honetan, Arrasate Press astekariaren hirugarren urtebetetzea, eta HIESari buruzko lan bat izango dituzue ikusgai.

4

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albistegia
9.15. *Txatxaran*. Mainer Egués-ek zuzendutako elkarrizketa saioa. Aste honetako gonbidatua: Esteban Uribesalgo, *Astoreko* enpresakoa..

5

OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Albistegia.
9.15. *Erretratoa*. J.R. Elortzak zuzendutako elkarrizketa saioa. Gonbidatua: Albaro Arregi "*Axeri*".



HIRI ETA ESTATU BARNEKO ETA NAZIOARTEKO

BIDALKETAK

ALBACETE, Batalla del Salado, 37. T. 967-22 75 53 - **Almansa**, Aniceto Coloma, 40. T. 967-34 58 58 - **ALICANTE**, C/A Fuentes de Alipark, loc. 3. T. 96-510 05 33 - **Alcoy**, Entenza, 46. T. 96-552 55 66 - **Benidorm**, Lepanto, loc. 30. T. 96-586 53 11 - **Elche**, Avd. Libertad, 123. T. 96-544 21 01 - **Elda-Petrel**, José Martínez González, 89. T. 5385 9 98 - **Torreveja**, Avd. Diego Ramirez, 223. Ecucenter. T. 96-571 73 91 - **ALMERIA**, Santa Isabel, 62. T. 951-25 09 88 - **El Ejido**, Alvaro Soto Mayor Gal. Cial. T. 951-48 36 13 - **Huerca Overa**, Crta. Nacional 340, Edif. Davinia, 2. T. 951-47 13 13 - **ANDORRA**, Carlemany, 105. T. 973-8-26300 - **AVILA**, Avd. de la Juventud, 6. T. 918-2112 67 - **BADAJOS**, Av. Juan Sebastián Elcano, 5 A. T. 924-25 50 51 - **Don Benito**, San Francisco, 30. T. 924-84 33 07 - **Mérida**, José María Pemán, 3. T. 924-31 94 49 - **PALMA DE MALLORCA**, Andrea Doria, 8. T. 971-23 21 41 - **Inca**, Edison, 1. T. 971-50 37 11 - **Manacor**, Av. Salvador Juan, 86. T. 971-55 57 74 - **Ibiza**, España, 30. T. 971-30 16 00 - **Formentera**, Crta. Pujol, s/n. T. 971-32 24 18 - **Ciudadela**, Camí d'es Degollador, 87. T. 971-38 05 12 - **Mahón**, Av. Anselmo Clavé, 56. T. 971-35 05 12 - **BARCELONA**, Casanova, 79. T. 93-323 32 05 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Palacio de Congresos - **Boulevard Rosa**, Pº. de Gracia, 55-57 - **Centro "La Caixa"**, Diagonal, 635 - **Cristal**, Gran Vía, 1176 bis - **Jonqueras**, Jonqueras, 2 - **Mercurio**, Vía Augusta, 59 - **Nerviñ**, Vía Layetana, 20 - **Windsor**, Vía Augusta, 2 - **Financia**, Pau Claris, 162-164 - **Pallars**, Pallars, 85-91 - **Colón**, Drassanes, 6-8 - **Mercabarna**, Esc. C Edificio Oficinas - **Hiperporc**, Meridiana, 354 - **Padilla**, Padilla, 205 - **Carlos III**, Sabino de Arana, 32 bis. bjos. - **Badalona**, Marqués de Mont Roig, 126. T. 93-388 51 51 - **Barberá**, Pso. Moragas, 256. T. 93-718 36 52 - **Berga**, De la Sardana, 27. T. 93-874 12 98 - **Cornellá**, Crta. Sant Boi, 9. T. 93-377 22 00 - **Granollers**, José Umbert, 58. T. 93-870 06 12 - **Hospitalet**, Plza. Maestro Clavé, 6-8. T. 93-337 01 00 - **Igualada**, San Ferrán, 22. T. 93-804 24 11 - **Manresa**, Crta. Pont Vilomara, 17. T. 93-874 12 12 - **Mataró**, Rda. Antoni Comas, 24. T. 93-798 34 57 - **Mollet**, Cayetano Ventullo, 87. T. 93-570 47 52 - **Pineda**, Santiago Rusiñol, 11. T. 93-762 69 69 - **Polinyá**, Mayor, 5-7 - **93-726 72 20 - Premia**, De la Plaza, 36. T. 93-752 10 55 - **Rubí**, Avd. Catalunya, 4. Edif. Iris. T. 93-697 03 66 - **Sabadell**, Rosales, 18 - **T. 93-726 43 77 - S. Andrés B.**, Plza. Iglesia, 1. T. 93-653 24 51 - **Tarrasa**, Balmes, 19. T. 93-789 22 22 - **Vic**, Av. Martí Genís Aguilár, 25, T. 93-885 62 50 - **Villafraanca**, Arbós, 14. T. 93-890 35 40 - **Villanueva**, Gornal, 13. T. 93-815 19 60 - **BILBAO**, General Eguía, 7 - **T. 94-443 76 08 - Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona Servicijs - **Cámara de Comercio**, Alameda Recalde, 50 - **Bermeo**, Reina Zubi, 17. T. 94-688 19 04 - **Durango**, Maspe, 10. T. 94-620 01 62 - **Guernica**, Bº. Txaporta, 3. T. 94-685 55 00 - **BURGOS**, Comuneros Castilla, 19. T. 947-23 66 11 - **Miranda**, Reyes Católicos, 14. T. 947-31 06 40 - **CACERES**, Sta. Luisa Marillac, 16. T. 927-21 06 34 - **Plasencia**, Rda. Salvador, 71. T. 927-41 26 09 - **CADIZ**, Guadix, 3. T. 956-25 75 61 - **Algeciras**, Urb. Dña. Casilda, bloq. 10. T. 956-65 35 61 - **Ceuta**, Gral. Aranda, 10. T. 956-52 18 01 - **Jerez F.**, Pso. Delicias, 5. T. 956-34 01 11 - **LAS PALMAS**, San Diego de Alcalá, 12. T. 928-36 55 77 - **Fuerteventura**, Avd. 23 de Mayo, 3. T. 928-85 07 17 - **Lanzarote**, Avd. Mancomunidad, 4. T. 928-81 67 14 - **Playa del Inglés**, Centro Comercial Nilo, loc. 1030 - **T. 928-76 66 53 - TENERIFE**, Ramón y Cajal, 50. T. 922-28 34 54 - **CASTELLON**, Maestro Falla, 7. T. 964-22 87 99 - **Benicarló**, Del Pilar, loc. 3. T. 94-685 55 00 - **Vall de Uxó**, Plaza Villavieja, 6. T. 964-66 71 11 - **CIUDAD REAL**, Parque Residencial Rda., bl. 11. T. 926-25 24 66 - **Puertollano**, Pso. San Gregorio, 1 Bl. B. T. 926-43 00 50 - **Valdepeñas**, Amparo, 18. T. 926-32 17 32 - **CORDOBA**, Avd. Libia, s/n. T. 957-26 86 00 - **Lucena**, Hoya del Molino, 6. T. 957-59 13 71 - **Pozoblanco**, Dr. Antonio Cabrera, 8. T. 957-10 26 20 - **CORUÑA**, Primo de Rivera, 11. T. 981-24 45 33 - **Ferrol**, Perbes, 16. T. 981-32 02 00 - **Santiago C.**, Pasadizo Brión, 11. T. 981-56 22 55 - **Riveira**, Ramón y Cajal, s/n. T. 981-87 22 12 - **CUENCA**, Colón, 73 - T. 966-22 92 21 - **GERONA**, Andrés Tuya Santamaría, 13. T. 972-21 55 66 - **Figueras**, Verge María, 6. T. 972-50 27 66 - **Junquera**, Crta. Nacional II, Km. 11. T. 972-54 05 05 - **Olot**, Pare Roca, 8. T. 972-26 58 58 - **Palamós**, Iglesia de Sant Joan, 6. Tel. 972-31 86 00 - **Puigcerdá**, Pla del Fort, 4. T. 972-88 14 51 - **GRANADA**, Trucha, Edif. Victoria, 3. T. 958-29 34 38 - **GUADALAJARA**, Angel Ma. de Lera, 4. T. 911-21 58 66 - **HUELVA**, Fernando el Católico, 4. T. 955-25 70 12 - **Ayamonte**, Joaquín González Saez, s/n. T. 955-32 19 57 - **HUESCA**, Concilio de Ibon, 14. T. 976-49 96 61 - **JAEN**, Avd. Madrid, 25. T. 953-26 53 04 - **LEON**, Cipriano Huerga, 14. T. 987-21 15 11 - **Ponferrada**, Tras de la Bóveda, 12. T. 987-41 82 51 - **LERIDA**, Avd. de las Garrigas, 13. - T. 973-20 57 58 - **Tárrega**, Dr. Riu, 7. T. 973-31 30 68 - **Viella**, Av. Pas d'arro, 5. T. 973-20 57 58 - **LOGROÑO**, Jorge Vigón, 28. T. 941-25 79 66 - **Calahorra**, Bebricit, 41. T. 941-13 30 66 - **LUGO**, Amor Meilán, 14. T. 982-24 13 61 - **Foz**, Méndez Val, 8. T. 982-13 21 02 - **MADRID**, Ros de Olano, 7. T. 91-413 62 14 - **Receptorías Urbanas: Gran Vía**, Gran Vía, 67 - **Indubuilding**, Vía de los Poblados, 9 y 11 - **Nº 3**, Sor Angela de la Cruz, 24 - **Nº 4**, Cedaceros, 9 - **La Caixa**, Pº. Castellana, 51 - **División Internacional**: Coslada, 15. T. 91-246 26 00 - **Alcobendas**, Pintor Velázquez, 10. T. 91-653 50 66 - **Arganda**, Crta. Valencia, Km. 25,8. Nave 38. T. 91-871 44 91 - **Majadahonda**, F. García Lorca, s/n. Urb. Delta. T. 91-638 78 97 - **Getafe**, Avd. Ciudades, 92. T. 91-681 14 14 - **Móstoles**, Castellón, 15. T. 91-617 64 63 - **San Fernando**, Sierra Albarracín, loc. 33. T. 91-656 21 13 - **MALAGA**, Urb. Santa Cristina, loc. 6. T. 952-34 07 00 - **Fuengirola**, Miguel Unamuno, s/n, L.3C. T. 952-46 30 00 - **Marbella**, Terrazas, P-3, loc. C. T. 952-82 61 61 - **Melilla**, Carlos de Arellano, 22. T. 952-68 38 47 - **Nerja**, Chaparril, s/n. T. 952-52 14 90 - **Ronda**, Villanueva, 21. T. 952-87 69 49 - **Torredelmar**, Urb. Pueblo Rocio, bloque 1. T. 952-54 05 84 - **MURCIA**, Pza. de las Balsas, 3. T. 968-21 00 31 - **Cartagena**, Licenciado Cascales, 10. T. 968-52 72 88 - **Lorca**, Avd. Juan Carlos I, Edif. Goya. T. 968-46 43 00 - **ORENSE**, Greco, 25. T. 988-24 34 00 - **OVIEDO**, López del Vallado, 7. T. 985-20 11 11 - **Avilés**, Llano Ponte, 56. T. 985-55 10 11 - **Gijón**, Peñora, 9. T. 985-35 11 11 - **PALENCIA**, Los Robles, 24. T. 988-74 79 77 - **PAMPLONA**, Pedro I, 19. T. 948-27 70 11 - **Tudela**, Diaz Bravo, 1. T. 948-82 19 17 - **PONTEVEDRA**, Trav. V. C. Mercadillo, G. Venecia. T. 986-84 43 12 - **Lalín**, Corredoira, 40. T. 986-78 17 44 - **Vigo**, Couto Piñeiro, 6. T. 986-41 51 00 - **Villagarcía**, San Roque, 15. T. 986-50 43 33 - **SALAMANCA**, Bolívar, 10. T. 923-23 14 62 - **Fuentes Oñoro**, Doctor Fleming, 28 A. T. 923-47 32 82 - **SAN SEBASTIAN**, Pso. Vizcaya, 17. T. 943-46 40 55 - **Azpeltia**, Polig. Ind., 35, Barrio Landeta. T. 943-81 54 08 - **Elbar**, Pso. Urquiza, 24. T. 943-12 09 50 - **Irún**, José Eguino, 14. T. 943-61 25 41 - **Mondragón**, Avd. Vizcaya, 16. T. 943-79 96 97 - **Tolosa**, Av. Alava, s/n, Bl. 2. T. 943-65 41 24 - **SANTANDER**, San Celedonio, 11. T. 942-22 52 72 - **Torrelavega**, José Luis Hidalgo, 5. T. 942-89 74 16 - **SEGOVIA**, Av. Fdez. Ladreda, 28. G.C. Loc. 10. T. 911-44 00 55 - **SEVILLA**, Alejo Fernández, s/n. T. 954-42 05 11 - **Receptorías Urbanas: Sevilla-2**: Francisco Javier, 9 - **Torre de los Remedios**, Rep. Argentina, 24 - **Estepa**, Sevilla, 48. T. 954-42 00 08 - **SORIA**, Postas, 27. T. 975-22 60 96 - **TARRAGONA**, Mar, 19. T. 977-22 25 22 - **Amposita**, Mayor, 28. T. 977-70 52 04 - **Reus**, Roseta de Sales, 40. T. 977-34 54 54 - **Tortosa**, Nova de Vall, 1. T. 977-44 67 13 - **Valls**, Sta. J. Veuruna, 7. T. 977-60 66 11 - **TERUEL**, Urb. La Guía, D.8. T. 974-60 85 18 - **TOLEDO**, Avd. Sta. Bárbara, 10. T. 925-21 44 04 - **Talavera**, Aragón, 6. T. 925-80 02 87 - **VALENCIA**, Dr. Beltrán Bigorra, 7. T. 96-341 44 22 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona de Servicios-Zona Este y Oeste - **Alicia**, Plza. Sagrada Familia, 8. T. 96-241 99 04 - **Gandia**, Mayor, 44. T. 96-287 31 70 - **Játiva**, Escultor Esteve, 5. T. 96-227 23 34 - **Onteniente**, Dos de Mayo, 95. T. 96-238 80 62 - **Requena**, Plza. Janini, s/n. T. 96-230 24 69 - **Sagunto**, Los Huertos, 89. T. 96-266 59 89 - **VALLADOLID**, Málaga, 10. T. 983-39 23 44 - **VITORIA**, La Florida, 58. T. 945-28 57 00 - **Llodio**, Solocelai, s/n. T. 94-672 56 66 - **ZAMORA**, Arapiles, 26. T. 988-52 10 99 - **ZARAGOZA**, Miguel Servet, 128. T. 976-49 95 11.

- HIRI BARNEKO ZERBITZUA
- * Furgoneta zerbitzua (400 Kg.)
- * Furgoneta zerbitzua (1.200 Kg.)
- ESTATU BARNEKO ZERBITZUA
- * Gau eta egun
- NAZIOARTEKO ZERBITZUA
- * Courier zerbitzua
- * Aire-karga zerbitzua
- * Itzulpen zerbitzua

ARRASATE

Bizkaia Hirib. 16, Tfnoa; 79 96 97

EIBAR

Urkizu Pas. 24 B, Tfnoa: 12 09 50

AZPEITIA

Landeta Auz. z/g Tfnoa: 81 54 08

DURANGO

Maspe 10-B, Tfnoa: 94-620 01 62

INFORMAZIOA
900 300 400



-ko kide

-ko kide